



LITERATUR LEHIAKETA 2017

ORIO

ESKOLA-UMEEN

LITERATUR LEHIAKETA 2017

ORIO



Azala: Rebeka Zamorano
Legezko gordailua: SS 477/88
Inprimaketa: Bizker grafikak (Lasarte-Oria)

Aurkibidea

<i>Hitzaurrea. Ane Etxabe Usandizaga</i>	5
<i>Paper borroka. Ane Aiestaran</i>	7
<i>Nire andereñoari. Nahia Amilibia</i>	9
<i>Selena eta herensugea. Amane Basurto</i>	9
<i>Jakobo eta Hankamotz pirata. Maddi Etxeberria</i>	11
<i>Mendia. Ane Alberdi</i>	17
<i>Unibertsolariak. Amaiur Sukia</i>	19
<i>Ume errefuxiatua. Urko Bravo</i>	21
<i>Ilargi beltza. Amaiur Sukia</i>	23
<i>Aupa Orioko! Jokin Iruretagoiena</i>	27
<i>Ametsa. Unai Lertxundi</i>	29
<i>Julenen maitasuna. Itsaso Aierbe</i>	29
<i>Udako altxorra. Garazi Unanue</i>	35
<i>Preso jaio. Marlen Guaye</i>	39
<i>Ametsak. Noa Peiro</i>	41
<i>Txokolatearen errezeta desagertua. Nadeth Garate</i>	43
<i>Amona Petra. Noa Peiro</i>	47
<i>Amona onenak. Nagore Iturralde</i>	53
<i>Konpromisoa. Leire Olariaga</i>	55
<i>Beti elkarrekin. Candy Ostolaza</i>	57
<i>Legearen aurka. Irene Manterola</i>	61
<i>Muki zapiak. Sara Mujika</i>	65
<i>Faltan. Nerea Uranga</i>	67
<i>Dena da posible. Amaia Rodriguez-Sierra</i>	69
<i>Pentsamendu itxien aldaketak. Naroa Arriaran</i>	73
<i>Krisia. Gorka Amas</i>	77
<i>Kontrako presentziak. Sergio Faro</i>	79
<i>Silueta gorria. Joxe Mari Unanue</i>	81
<i>Gaueko argiak. Irati Vivas</i>	85
<i>Mutil bat eta neska bat. Itziar Mendizabal</i>	91
<i>Beharra? Eider Peiro</i>	93
<i>Ez utzi berriro joaten, ama! Ainhoa Martikorena</i>	95
<i>Azken aukera. Leire Elorza</i>	101

Hitzaurrea

Ni ez naiz idazlea; irakurlea bai, baina idazlea ez. Bizitza osoan gutxitan hartu dut idazle rola, eta bietan Orioko literatur lehiaketarako izan da: aspaldi, ikasle nintzenean, eta iaz, heldutan. Iaz aurkeztu banintzen, zerbait idatzi eta probatzea erabaki banuen, gaztetxotan izandako esperientziagatik izan zen, orduan konturatu bainintzen ipuinak idaztea gustatzen zitzaidala.

Gogoan dut, txikitan, oporretarako lana izan ohi genuela ipuina idaztearena. Lehenengo galdera beti izan ohi zen ea zenbat idatzi behar ote genuen. Alfer profesionalen modura, luzerak bakarrik axola zigun. Hasieran, etxerako lan guztietan bezala, nagikeriaz hasten nintzen ni ere; baina, gero, gustatzen zitzaidala ohartu nintzen.

Ia magikoa iruditzen zitzaidan ipuinek sortzeko zuten gaitasuna, niri ia esfortzurik egin gabe idazten zirela iruditzen zitzaidan. Hasten nintzen hitzak bata bestearen atzetik jartzen eta, konturatzeko, idatzia nuen zerbait. Gero, egiaren ordainetan, idatzitakoak ez zuen ipuin itxurarik; ez zen ulergarria, ez zituen ipuin batek behar dituen elementuak, eta hitz akastun gehiago zeuden akatsik gabeak baino. Baina, tira, zer egingo diogu...

Ez dut inoiz pentsatu izan Orioko literatur lehiaketa honek herriko gazteek ipuin eta olerki mundialak idaztea bilatzen duenik. Helburua haur eta gazteak literatura idazten jartzea da. Jar zaitezte, bada! Agian, ni neu bezala, konturatuko zarete gustuko duzuela idaztea. Kasu horretan, gozatu! Baliteke gorroto izatea ere... sentitzen dut... baina gauzak probatu egin behar izaten dira gustatzen ez zaigula ziurtatzeko ere!


Eskerrik asko, beraz, proba egin duzuen guztioi!

Ane Etxabe Usandizaga

Paper borroka

Idazten hasi naiz,
papera apurtu zait.
Ez du inportarik!
Berriro hasiko naiz...
Ez dago paper gehiago.
Orduan...
Non idatzi?
Kaletik noa hormetan margotzen.
Pintura agortu zait.
Frontoian nago.
Kontuz, polizia dator eta!
Ezingo dut margotu.
Nola ezetz?
Hondartzara noa,
hondarrean marraztera.
Han marraztuko dut
nik nahi dudan guztia!

Ane Aiestaran



Amane Basurto

Nire andereñoari

Nirekin nahi zaitut, andereño;
beti nire ondoan, beti nire alboan,
zurekin beti ikasten,
zurekin ondo pasatzen.

Nirekin nahi zaitut, andereño;
beti nire ondoan, beti nire alboan.
Goizero esnatzen naiz
zurekin egoteko irrikatan.

Nirekin nahi zaitut, andereño;
beti nire ondoan, beti nire alboan,
bizitzako bidea erakusten,
bizitza alaia egiten.

Nahia Amilibia

Selena eta herensugea

Bazen behin, Txinako herri batean, Selena izeneko neska bat. Selenak zortzi urte zituen eta neska alaia eta atsegina zen.

Egun batean, menditik herrira herensuge ikaragarri eta beldurgarri bat jaitsi zen eta, bat-batean, Selenari eraso egin zion. Orduan, Selenaren lagunak, azkar-azkar, herriko soldaduen bila joan ziren. Baina, bitarte horretan, herensugeak bere kobara eramanean zuen neskak. Selena zeharo ikaraturik zegoenen, baina herensugea berarekin txintxo-txintxo portatzen hasi zen eta, azkenean, biak lagun egin ziren.

Orduan, soldaduak herensugearen bila kobara igo ziren, hura hiltzeko asmoz; baina Selenak defendatu egin zuen:

–Geldi hor!

–Ez, ez! –eta neska indarkeriaz baztertu eta herensugearen bila hasi ziren.

Hark, ordea, alde egin zuen.

Hurrengo egunean Selena, bere amarekin batera gosaldu ondoren, kalera irten zen. Buelbaka zebilela, ideia bat bururatu zitzaion eta bere lagunei proposatu zien:



Jinhan Chen

–Nire lagun herensugeak esan zidan Herensugeen Herrira joango zela eta nik herri hori ezagutu nahi dut.

–Ez digute kalterik egingo?

–Ez, ez! Nire laguna han egongo da-eta!

–Bale, ba! Goazen!

Eta Selena eta bere lagunak mendi aldera abiatu ziren. Kobaren inguruan tunel luze eta ilun bat topatu zuten. Linternen bidez bidea argitu eta, tunelaren luzera guztia igaro bezain laster, Herensugeen Herrira iritsi ziren.

–A, ze polita! –oihukatu zuten guztiak batera.

Herria eguzkitsua zen, alaia, koloretsua eta lasaia; eta herensuge guztiak bake-bakean eta poz-pez ikusten ziren. Umetxoak zoragarriak ziren. Eta herensuge-tarrek ongietorri ederra egin zieten Selenari eta bere lagunei.

Baina sekretua ondo-ondo gorde zuten, soldaduek Herensugeen Herriari eraso ez ziezaioten.

Eta, noizean behin, bisitan joaten dira eta ederki pasatzen dute Herensugeen Herrian.

Amane Basurto

Jakobo eta Hankamotz pirata

Jakobo Afrikako ume pobre bat zen. Bere aita eta ama hilda zeudenez, berak zaintzen zituen bi anaia txikiak. Behin, egun bero batean, Jakobo herriko putzura ur bila zihoala, negarrak entzun zituen eta hurreratu egin zen.

–Zer gertatzen da, etxeoandre?

–Key nire senarra odoletan eta zaurituta dago.

–Nola?

–Nik jakingo banu! Putzura zihoan eta...

Jakobo, etxerantz zihoala, itzal ilun bat ikusi zuen odol tanta batzuen ondoan. Jakobok nor zen ikusterako, alde egin zuen eta jakin-minez itzuli zen etxera. Bazkaltzeko ez zuten gauza handirik: ogia eta ur pittin bat. Han egunak oso gogor-rrak ziren.

Hurrengo egunean, putzura iritsi orduko, ur tantarik ez zegoela konturatu zen. Lurrean marka arraro batzuk ageri ziren, ibilgailu batenak edo.

Jakobok esan zuen:

–Hau larria da! Urik gabe gaude!

Eta etxera joan zen korrika. Bere bi anaia txikiak etxeoandrearekin utzi zituen eta bera maltzur hori bilatzera joan zen. Basamortuko bero jasanezina lagun zuela, bi kilometro egin zituen; baina ez zuen ezer ikusi. Ibilgailu baten marka arraro haiek besterik ez. Bat-batean, hots bat entzun zuen eta gerturatu egin zen. Tximu bat zen, eta esan zion:

–Nor zara?

–Ni, Boomonki, eta galdu egin naiz.

–Lasai, nik lagunduko dizut.

–Eskerrik asko, eta zuk nola izena duzu?

–Jakobo.

Horrela, Jakobo eta Boomonkik aurrera jarraitu zuten. Bat-batean, zerbait ikusi zuten urrutira eta korrika hasi ziren. Oasi bat zen eta, bertan, arbolak zeuden eta fruitu pila. Jakobo liluratuta zegoen. Boomonki, poz-pezik.

–Hemen bizi naiz ni!

–Ze polita!

–Lagundu nauzulako, nire etxera gonbidatuko zaitut lotara.

–Non bizi zara?

–Zuhaitz erraldoiaren gainean. Zatoz nirekin!

Jakobo eta Boomonki lotara joan ziren. Hurrengo goizean kolore guztietako loroak ikusi zituzten hegan zeruan, eta elefanteak eta gorilak arbolen ondotik pasatzen. Gauza eder horiez gain, hala ere, zerbait arraroa ere ikusi zuten zuhaitz erraldoiaren azpian zulo bat egiten.

–Aizu, zein zara?

–Aaaaa!

Konturatu baino lehenago, gizaki misteriotsua ibilgailu batean alde egin zuen ziztu bizian. Hala ere, Jakobo ohartu zen egurrezko hanka zeukala, eta esan zuen:

–Hori izango da bila nabilena! Bere atzetik joan behar dut! Agur, Boomonki! Ez zaitut ahaztuko!

–Agur, Jakobo! Agur!

Jakobok oasia utzi eta korrika hasi zen. Handik pixka batera, nekatu egin zen eta bi minutuz geratu zen, atsedena hartzeko. Orduan, berriro ibilgailuak utzitako arrastoak ikusi zituen eta haren atzetik jarraitu behar izan zuen Txinaraino.

Txinako Harresiko koba batean panda hartz bat zegoen lotan. Bat-batean, bonbak entzun ziren. Jakobo handik paseatzen ari zen eta, beldurtuta, kobara sartu zen. Barruan panda zegoen, baina zauriturik. Jakobok galdetu zion:

–Ongi al zaude? Zer gertatu zaizu?

–Pirata batek lozorrotik esnatu nau eta ni haserretu egin naiz. Orduan, berak tiro egin dit.

Jakobok, zapi batez, zauria garbitu zion. Panda hobeto zegoen.

–Aizu, panda... eta nolakoa zen, ba, pirata hori?

–Egurrezko hanka bat zuen, eta oso zikin zegoen. Lurrez beteta zeukan aurpegia.

–Lagundu nahi al didazu pirata hori harrapatzen?

–Bai, noski! Biok batera talde ona egingo dugu!

Jakobo eta panda hartza koba ilun hartatik atera ziren. Harresi inguruan pistak bilatzen hasi ziren. Oinatz batzuk aurkitu zituzten: alde batean zapataren marka eta bestean biribil bat. Jakobok adierazi zion:

–Pirataren oinatzak izango da hau!

Oinatzak jarraitu zituzten hondartza batera iritsi arte. Han itsasontzi bat ikusi zuten, urertzean geldirik. Ez zen arrunta. Pirata ontzia zen. Jakobok galdetu zion pandari:

–Zuk ba al daukazu txaluparik?


–Bai, baina nik lehorrean geratu nahi dut. Dena dela, utziko dizut txalupa.

Txalupa hartuta, pirataren itsasontzira gerturatu zen Jakobo. Ia-ia iritsi zenean, itsasontzi pirata martxan hasi zen. Egunak eta egunak pasa behar izan zituen itsasoan bidaiatzen itsasontziaren atzetik. Oso gosetuta zegoen eta edateko ur gazia besterik ez zeukan.

Halako batean, lurra ikusi zuen urrutira. Zelai berdez eta basoz betetako lurralde batera iritsi ziren. Euskal Herria zen!

Pirataren itsasontzia jada hondartzan zegoen. Jakobo ere iristear zegoen. Gero eta urduriago zegoen, pirata hark beldur pittin bat ematen zion-eta.

Iritsi zenean, pirata ikusi zuen azkenean, mundu erdia bere atzetik pasatu ondoren. Ez zen uste zuen bezain handia, hanka bat egurrezkoa zuen, arropa urdin



Jare Mendizabal

eta gorriak zituen eta aurpegia lurrez zikinduta. Kutxa handi bat zeukan esku artean. Altxorraren kutxa! Jakobok esan zion:

–Aizu! Etor zaitez hona!

–Nor zara zu?

–Ni zure atzetik mundu osotik ibili naizen mutila naiz. Afrikako gure herrixkan ura lapurtu zenigun eta herritarrak zauritu.

–Barkatu, baina gaizki-ulertu bat da hau dena. Hankamotz pirata izena dut eta pirata bat naiz. Hemen daukadan kutxa honetan altxor bat zegoela uste nuen, baina nire arbasoen mamuak daude. Nire arbaso piratak maltzurak eta zitalak dira eta haiek egin dituzte gaiztakeria guzti horiek. Nik kutxa hau gainetik kendu nahi dut, besterik ez. Aurrena zure herrixkako iturriaren aldamenen nahi nuen ezkutatu, baina mamuek dena hondatu zuten. Gero oasiko zuhaitz erraldoiaren azpian saiatu nintzen, baina zu konturatu egin zinen. Azkenik, Txinako Harresiko kobazuloan ezkutatu nahi nuen, baina hartza esnatu nuen.

–Orain denak zentzua dauka!

Karibeko Antilla uhartera joan nahi nuen, piraten etxea baita hura; baina, nahasita, Orioko Antilla hondartzara etorri naiz.

–Non lurperatu nahi duzu kutxa?

–Ez nago ziur.

–Bota dezagun horko mendi horretatik!

Horrela, tipi-tapa, tipi-tapa, aldapan gora joan ziren Itxasperaino, kutxa beren gainetik kentzeko irrikaz; baina irekitzeko beldurrez, barruan mamuak zeudelako.

Itxaspera iritsi zirenean, leku on bat aukeratu eta, bitan pentsatu gabe, itsasora bota zuten kutxa. Orduan, Hankamotz piratak esan zuten:

–Hau da, hau, bakea! Azkenean, kutxa hori kendu dut nire bistatik!

Txakolin bat hartu zuten, ospatzeko, beheko taberna batean. Orduan, Jakobo bere herriaz eta bere anaiez gogoratu zen.


–Eta orain nik zer egingo dut? Orain nola joango naiz Afrikaraino?

–Lagundu egin didazulako, orain nire txanda da. Ni joango naiz zure familiaren bila Afrikara itsasontziz eta hona ekarriko ditut. Zu ez larritu.

Handik egun batzuetara, han ziren bere bi anaiak eta etxeakoandrea, eta denak oso pozik bizi izan ziren Orion.

Eta hala bazan edo ez bazan, atera dadila Antillako hondartzan!

Maddi Etxeberria




Ander Uranga

Mendia

Igande goizez denok
joan gara mendira,
hantxe ibili gara
jira eta bira,
orein talde bat doa
goiko belardira,
gustura egon gara
beraiei begira (bis).

Gailurretikan bueltan
bagoaz basoan,
errekaxo bat ere
badugu ondoan,
baserritarra ere
lanean soroan,
ondo pasa dut eta
berriz nahi dut joan (bis).

Ane Alberdi



Brittney Coon

Unibertsolariak

Oso polita dugu
beti ilargia;
gainera, egiten dio
gauari argia.


Batetik besteraino
izar iheskorra,
ematen du duela
atzean motorra.

Zortzi planeta daude
Eguzki Sistemán,
eta denetatikan
pasa da Superman.

Eguzkia dizdizka
dago bero-bero,
erreko gináteke
ukitu ezkeró.

Handia, erraldoia,
gure unibertsoa;
oraintxe bota dizut
nire azken bertsoa.

Amair Sukia



Uxue Etxeberria

Ume errefuxiatua

Bazen behin ume bat, Mikel izena zuena. 9 urte zituen eta lagun oso onak: Karla, Merina, Unai, Alex eta Uxue. Karlak 11 urte zeuzkan; Merinak, 10; Unaik, 8; Alexek, 12; eta Uxuek, 9. Denak Sirian bizi ziren eta oso kuadrilla ona zen.

Mikelek ile oso polita zuen eta oso bihotz onekoa zen. Bere kolore gustukoena berdea zen. Bat-batean, gerra lehertu zen eta, ihes egiteko, barkuak prestatzen hasi ziren. Mikel, Karla, Merina, Unai, Alex eta Uxue barku berean tokatu ziren eta, denbora guztian, pistolan jolasten jardun ziren. Iritsitakoan, beste gerra bat hasi zen eta joan egin behar izan zuten berriro. Talde desberdinetan tokatu ziren orduan, eta denak oso-oso triste jarri ziren. Mikelek bidaiaria osoa pentsatzen eman zuen eta, iritsitakoan, etxe onak jarri zizkioten arren, triste zegoen, bakar-bakarrik zegoelako. Ikastolara joaten hasi zen; baina, hala ere, oso triste jarraitzen zuen. Ez zekien alfabeto latinoan irakurtzen, kiroletan ez zen ona eta ez zeukan lagunik.

Bat-batean, beste gerra bat hasi zen; bonba oso handiak botatzen zituzten eta dena suntsitzen zuten. Mikelek esan zuen: *Mundua, lagundu! Joaten naizen herri guztietan gerra bat hasten da!* Handik ere barkuan alde egin zuten eta Euskal Herrira iritsi ziren.

Momentu hartan ez zegoen gerrarik Euskal Herrian eta, hori ikusita, pixka bat poztu zen. Ikastolara joan zenean, oso lagun ona egin zuen. Galdetu zion ea zein zen bere izena eta hark esan zion Ibai zela eta 9 urte zituela. Denbora gutxira, Ibaik galdetu zion ea berekin bizi nahi zuen, oso zintzoa eta jatorra zela eta. Mikel harrituta geratu zen eta, pozez zorutzen, esan zion baietz, izugarria litzatekeela Aian bizitzea berarekin.

Horrela, han bizitzen jarri eta alboko herriko futbol taldean izen eman zuen: Orioko Futbol Taldean. Lagun oso onak egin zituen bertan: Ander, Urko, Lizar eta Ibai Sola. Igandean partida jokatu zuten eta irabazi egin zuten. Hortik aurrera betiko pozik bizi izan zen, aiar bat gehiago bezala tratatu zutelako eta gerran bizi izandakoak erabat ahaztu zitzaizkiolako.

Urko Bravo



Nahia Iglesias

Ilargi beltza

Bazen behin hiru pertsonaz osatutako familia bat: ama, aita eta Mikel semea. Oriotarrak ziren eta gauero-gauero irteten ziren ilargiaren edertasunaz goatzera.

Amak ile gorria zuen eta bereziki beldurtia zen. Ez zitzaion gauean ateratzea gustatzen eta, aita eta semea Ilargia ikustera ateratzen zirenean, bera etxe barruan gelditzen zen. Hori bai, ama oso amestia zen eta, goizero, haren ametsak kontatzen zizkien aitari eta semeari.

Aita pentsakorra eta isila zen; baina, Ilargia ikusten zuenean, isiltasuna hautsi eta ozen hitz egiten zuen, oihu eginez.

Mikel semea azkarra, argala eta bihurria zen eta oso ondo pasatzen zuen aitatzokerekin Ilargiari begira.

Mikel eta bere aitari gauetan zelaian etzanda egotea gustatzen zitzaien, izar iheskorrei begira. Ilargia zaintzen zuten biek batera eta, tarteka, hegazkinen argiei esker, beste lurralde batera bidaiatzen zuten.

Baina, gau batean, ohartu ziren zeruan ez zegoela Ilargirik.

Mikel, pentsakor eta harriturik, bere buruari galdetu zion: *Zer gertatu zaio Ilargiari? Non dago eta zergatik desagertu da?*


Munduan ikaragarritzko iluntasuna sortu eta itsasoa haserretu zen. Ilargirik gabe ezin zen mundua gobernatu eta, orduan, mundua jabetu zen Ilargiaren botereaz; alegia, Ilargia beharrezkoa zela bizitzeko.

Aita triste zegoen, eta galdetu zuen: *Ametsetan ari al naiz? Ez da posible! Ilargia desagertu egin da! Akabo mundua!*

Mikeli ideia bat otu zitzaion: *Eskailera bat hartu eta goazen zerura, aita!*

Aitak hori ezinezkoa zela erantzun zion Mikeli, baina proposatu zion liburute-gira joatea, Ilargiaren misterioa aztertzerako.

Hurrengo goizean aita eta Mikel liburute-gira joan ziren eta, liburu tartean, soluzioa aurkitu zuten. Ilargiari buruzko liburu asko zeuden; baina, bat-batean, *Ilargi beltza* izeneko bat eskuratu eta harrিতuta begiratu zioten. Liburu hark zeukan misterioaren giltza: Ilargia hainbat gauzgatik tristatzen da tarteka. Baina zergatik ote zen oraingo honetan? Liburua irakurtzen jarraitu eta konturatu ziren: Ilargia ez zegoen pozik, gizakiek sarriago begiratzen ziotelako eguzkiari berari baino. Udan hondartzan eguzkia hartzen egoten ziren; udaberrian landareak ere eguzkiari begiratzen zioten. Eguzki-lore izeneko lore bat ere bazen munduan! Ilargia bakarrik eta minduta sentitzen zen.




Michael Mastrantonio

Gauean Mikel eta aita berriro ere Ilargiaren bila atera ziren, baina ez zegoen Ilargirik. Bazekiten Ilargia zergatik zegoen triste eta okurritu zitzaien Ilargiaren Gaua antolatzea. Oriotar guztiak bildu zituzten Ilargiaren bila zerura begiratzeko, eta Ilargiak ikusi zuenean 5.000 biztanle eta 10.000 begi zeudela berari begira, poztu eta piztu egin zen.

Hortik aurrera gauero-gauero Mikel eta bere aita Ilargiari begira jartzen ziren, zoriontsu, belarretan etzanda. Amak beldurrak gainditu zituen eta, aurreneko aldiz, liluratuta gelditu zen Ilargiarekin.

Aurrerantzean Ilargia ez zen inoiz itzali.

Amaiur Sukia



Ane Amas

Aupa Orioko!


Batzuk oriotarrak
bestek Aiakoak,
Mendibeltzen dauzkagu
entrenamenduak.
Hantxe gure txuteak
eta ostikoak,
Orioko izena
du gure ekipoak.

Hiru entrenadore
ditugu ekipoan:
Eugenio, Alberto,
Jon Ander ondoan.
Beti ibiltzen dira
gurekin marruan,
ez badugu egiten
kasu lehengoan.

Igandero dauzkagu
partida berriak,
bisitatzen ditugu
ondoko herriak.
Han ditugu botatzen
gure izerdiak,
baina galtzen ditugu
partida erdiak.

Partida bukatuta,
denok dutxatzera,
izerdituta gero
kiratsa kentzera.
Irabazi badugu,
tope ospatzera,
eta aupa Orioko!
Gu onenak gara!

Jokin Iruretagoiena



Intza Beaumont

Ametsa

Gauero, erdi lo nagoelarik,
katua sartzen zait nire leihotik.
Biok irteten gara eta
herriko plazan gabiltza dantzan.
Goizean alde egiten du
katuak bere etxera,
eta ni ohera.
Baina badakit itzuliko dela eta
berriro ibiliko garela
herriko plazan dantzan.

Unai Lertxundi

Julenen maitasuna

Ni Julen naiz, 10 urte ditut eta Orion bizi naiz. Gaur nire eskolako lehenengo eguna izan da. Bihar Veneziara goazela esan digute. Irakasleak esan digu Venezia oso polita dela eta txalupetan ibiliko garela. Mutil guztiak aztoratuta jarri dira, irakasleak esan duelako oso neska politak daudela Venezian. Niri hori ez zait axola, gaur neska berri polit eta xarmagarri bat etorri delako eskolara. Ile hori kizkurra eta betile luze-luzeak ditu. Arropa berria eta distiratsua du. Aaaaasko gustatzen zait.

Niri asko gustatzen zait Venezia. Lehengo urtean nire lehengusua joan zen. Oso erromantikoa dela kontatu dit. Zubian jende asko egoten dela eta, handik pasatzeko, ilara handia egin behar dela. Baina gehiena pizzak gustatzen zaizkit. Izugarri ondo pasatuko dugu; gainera, neska berriak ere joateko asmoa du.

Gaur ezin nuen lo egin. Pixa egitera esnatu naizenean, maletak egin gabe nituela konturatu naiz. Orduan, esnatu eta maletak prestatzen hasi naiz. Justu-justu iritsi naiz eskolara. Iritsi naizenean, neska berriak maleta dotorea, arropa izugarri polita eta zapata berriak zeuzkan soinean, eta eskolako neska politekin hitz egiten ari zen. Bat-batean... turrinn! entzun da.

Iritsi da ordua pentsatu dut. Gelara sartu naizenean, denak urduri zeuden: mutilak hegazkinaz pentsatzen eta neskek, berriz, ezingo zutela makillatu.

Irakaslea iritsi denean, komunera joateko esan digu. Mutilek ez zuten komunera joan nahi, baina andereñoak esan duenean hegazkinean ez zegoela komunik, korrika batean abiatu dira. Goizeko 9:20an autobusa etorri da. Autobusean neska berria nire ondoan jarri da. Ni oso urduri nengoen. Orduan, esan dit:

–Julen, zu urduri al zaude?

–Ez –esan dut dardarka. Eta pentsatu dut: *Nire izena daki!*

Orduan, berarekin hitz egiten hasi naiz. Ordurako, aireportuan geunden. Aireportuan galdetu dit:

–Nahi duzu nirekin joan hegazkinean?

–Bai, jakina! –erantzun diot.

Hegazkinean sartu garenean, leiho ondoan eseri da. Orduan, galdetu diot:

–Zergatik jartzen zara leiho ondoan? Nik nahiago dut hemen.

–Ba, egia esan, nahiago dut hemen, gero oso paisaia polita dagoelako. Erakutsiko dizut.

Orduan konturatu naiz ez nekiela bere izena eta, galdetzera nindoanean, zarata bat entzun da.

–Hegazkina martxan dago! –esan dute guztiek.

Nahiko goian geundenean, esan dit:

–Begira, begira...

–Hala! –esan dut–. Ze polita!

–Horregatik gustatzen zait hainbeste.

Orduan, gogoratu naiz azkenean ez diodala izena galdetu.

–Zein da zure izena?

Orduan, urduritzen hasi da eta esan dit:

–Esango dizut, baina, tira, ez esan inori...

–Bale! Zin egiten dizut.

Orduan, esan dit belarrira:

–Lia, Lia Dorronsoro.

–Zergatik da garrantzitsua ez esatea?

–Ez, kontua da... mmmm... ba... Ni Veneziako printzesa naizela. Horregatik etorri nintzen Oriora, oso lasaia delako eta han ez nindutelako harrapatuko.

–Harrapatu, zeinek?

–Ba, begira, nire familia oso aberatsa da eta, esaten dutenez, altxor bat dago gure gazteluaren azpian. Lapur batzuek lapurtu egin nahi digute; baina, irakasleekin joango garenez, ez dit beldurrik ematen.

Hegazkinetik ateratakoan, irakasleak esan digu binaka jartzeko eta, jakina, ni Liarekin jarri naiz. Aireportutik atera garenean, beste autobus bat etorri zaigu bila eta gure ostaturaino eraman gaitu. Oso polita da ostaturaino: dena berri-berria da eta oso ondo apainduta dago. Logeletan Liarekin tokatu zait, baina Maria eta Iratirekin ere bai. Maria eta Irati ez dira, esaten den bezala, ikasle onak. Nahiko zikinak dira eta, askotan, ez dituzte etxeko lanak egiten. Kontua da Liarekin tokatu zaidala! Hori da garrantzitsua. Afaltzeko orduan Lia nire ondoan eseri da eta, gure parean, Unax eta Maren. Bikotea direla esaten dute. Lotako orduan diskoteka egin dugu 11:00ak arte, eta logelan Liarekin hitz egiten egon naiz.

Gaur, gosaldu eta gero, museoa ikustera joan gara: 10:00etan sartu eta 13:30ean atera gara. Ostaturaino bazkaldu eta txalupetan ibiltzera joan gara. Han txalupak zozkatu ditugu eta, zoritxarrez, Iratirekin tokatu zait. Gainera, ia galdu egin gara. Egia esan, ez dut oso ondo pasatu. Ostaturaino joan garenean, esan digu irakasleak:

–Nahi duzuen egin dezakezue.

–Ze? –harrituta geratu gara–. Nola? Nahi duguna? Venezian libre?

–Bai. Zer izango da, ba?

–*Tomaesa!*

–Baina zazpiak arte, e?

–Bai, bai!

Lia eta ni paseo bat ematera joan gara. Berak oso ondo ezagutzen du Venezia eta nire gidaria izan da. Lehenengo muxuen zubia ikustera joan gara. Han geundenean, bikote asko ikusi ditugu eta, gainera, denak elkar musukatzen. Lotsa handia eman digu eta korrika joan gara. Hurrengo geltokia portua izan da. Oso polita da eta, gainera, gaua denez, farola guztiak piztuta daude. Ondoko mendi batera igo gara eta, handik, izarrak ikusten egon gara. Oso erromantikoa izan da. Orduan, Liak erlojuari begiratu eta berandu iritsiko ginela konturatu gara. Korrika batean mendia jaitsi eta ostaturaintz joan gara. Liak bide arraro batetik eraman nau eta bide erdian gelditu egin gara. Orduan galdetu diot:

–Zergatik gelditu gara?

–Etorri nirekin....

Ez begiratzeko esan dit eta, begiak ireki ditudanean, gaztelu baten parean geunden. Ni aho zabalik gelditu naiz.

–Zer da hau? –galdetu dut.

–Hau nire gaztelua da. Goazen sartzera.

–Ez. Ezta pentsatu ere. Orain sartzen bagara, berandutu egingo zaigu.

Orduan, ostatura joan gara eta, lotarako orduan, ezin nuen lorik egin. Gaztelua ezin nuen burutik kendu. Orduan, ideia bat bururatu zait. Gaueko 00:00ak arte egon naiz esna eta, lokartzen hasi naizenean, alarmak jo dit. *Iritsi da ordua!* esan diot nire buruari.

Esnatu bezain pronto, Lia ere esnatu dut, jantzi eta kanpora atera gara. Kanpoan esan diot:

–Goazen gaztelura!

–Ez, zu txorora zaude.

–Orain joaten bagara, denak lotan egongo dira. Mesedez, Lia...

–Bale; baina, norbait ikusten badugu, korrika aterako gara.

–Bale; ondo iruditzen zait.

Gaztelura joan gara korrika eta bost minututan han geunden. Sartzera joan naizenean, atea itxita zegoela konturatu naiz eta leiho batetik sartu gara. Barruan geundenean, pelikuletan bezala zela esan diot Liari. Altxorra liburuetan egongo zela eta guztiak begiratzeko esan diot. Gero irteera bat bilatuko genuela. Liburu guztiak miatu ditugu, baina ez dugu zorterik eduki. Liburutegiko sarreran apalategi bat zegoela ikusi dugu eta konturatu naiz hango apal batean *Altxorra* izeneko liburu bat zegoela. Hartu eta, berehala, ate ezkutu bat azaldu da. Sartzera joan, atea itxi egin da. Dena ilun-ilun zegoen eta, bat-batean, argiak piztu dira.

Bidetik segituta, ate bat aurkitu dugu eta suzko bola bat hitz egiten hasi zaigu eta hauxe esan digu:

–Asmakizun hau asmatu beharko duzue zuen bizitza salbatu nahi baduzue: *Instrumentu bat da, baina ezin da jo eta ezin da ukitu. Zein da?*

Orduan biak pentsatzen hasi gara:

–A! Badakit! Biolina! –esan dut.

–Ez, biolina ez. Biolina ukitu daiteke.

–Egia da.

–Badakit! Kantua da!

–Bai. Asmatu duzue! Aurrera!

Aurrera segitu eta beste ate bat aurkitu dugu; baina, oraingo honetan, momia errege bat azaldu zaigu eta, ahots arraro batekin, hauxe esan digu:

–Oraingo honetan joko bat izango da, futbola; baina, kontuz: ez baduzue irabazten, momia bihurtuko zaituztet.

–Bale! –esan dugu biok batera.

Derrepentean, bi momia azaldu dira lurretik. Lia beldurtu egin da, baina nik lasai egoteko esan diot. Bera atezain jarri da eta, azkenean, 2-0 irabazi dugu futbol partida.

Aurrerago segi eta hantxe zegoen altxorra! Ezin genuen sinetsi! Altxorra aurkitu genuen! Orduan, ostatura joan eta, irakasleari gertatutakoa kontatu eta gero, poliziari deitu genion. Azkenean, lapur madarikatu haiek kartzelara joan ziren eta Lia eta ni pozik bizi izan gara.

Itsaso Aierbe



Nora Bravo

Udako altxorra

2008ko udako egun batean, Amaia Goikoetxea etxean aspertuta zegoen. Amaiak 11 urte zituen, Nafarroako herri batean bizi zen bere familiarekin, eta oso neska polita zen, altua eta bizkorra. Begi urdin argiak, belarri txikiak, sudur ertaina eta ilea luze eta marroia zituen. Argia eta oso alaia zen.

Arratsalde batean etxean aspertuta zegoen Amaia eta amak esan zion lagunei mezua bidaltzeko, ea geratu nahi zuten parkera joateko. Berak halaxe egin zuen: poltsikoko telefonoa hartu eta mezua bidali zien Mikel, Andrea, Joseba eta Nahiari.

–Geratuko gara 16:00etan parkean? –galdetu zuen Amaiak.

–Bale! –idatzi zuten beste guztiek.

Mikel bihurri xamarra zen. Andrea, berriz, marimandona bat: berak esandako guztia bete behar zen. Joseba zintzoa eta isila zen; eta Nahia, berriz, berritsua.

Arratsaldean parkean...

–Begira! Orri honetan zerbait idatzita dago! –esan zuen Josebak.

–Irakurri, irakurri! –esan zuen Amaiak.

–*Parkeko txirristaren azpian dagoen kutxa moduko hori hartu* –irakurri zuen Mikelek.

Denak korrika joan ziren txirristaren azpira, eta lehen ez zegoen kutxa bat ikusi zuten.

–Hau izango da orrian jartzen zuen kutxa, ezta? –galdetu zuen Andreak.

–Bai –erantzun zion Nahiak.

Andreak kontuz ireki zuen kutxa zer bilatuko zuen beldurrez, eta orri arraro bat zegoen. Orria hartu eta azkar-azkar zabaldu zuten.

–Altxor baten mapa dirudi! –esan zuten.

Mapan beren herriaren irudia zegoen: herriko eraikuntza zaharrak eta pista bat agertzen ziren:

LEHEN PISTA

*Tan, tan,
uraren soinua.*

*Tan, tan,
nondik ote dator hori?*

–Goazen pentsatzera azkar –esan zuen Andreak, eta denak pentsatzen jarri ziren.

–Badakit! –oihukatu zuen Josebak.

–Esan, esan... –esan zuten besteek.

–Parkeko harrizko iturri zaharra! –erantzun zuen Josebak.

Denak parkeko iturri zaharrera joan ziren eta inguruan biraka hasi ziren, ea zeozer aurkitzen zuten. Halako batean, harrizko iturriaren zulo batean, orri arraro bat aurkitu zuten, plastiko batean bilduta. Plastikoa kendu eta orria zabaldu zuten. Orrian bigarren pista idatzita zegoen eta irakurtzen hasi ziren:

BIGARREN PISTA

*Tilin-talan,
herriko eraikinik altuena.
Tilin-talan,
orduero entzuten dena.*

Denak pentsatu eta pentsatu jarri ziren, baina ez zekiten zer izan zitekeen eta, halako batean, lagun guztiak hitzak esaten hasi ziren:

–Dorrea, liburutegia...

–Badakit: elizako kanpandorrea! –esan zuen Nahiak.

–Egia! Goazen elizara! –esan zuen Amaiak.

Eta elizara abiatu ziren korrika. Ailegatu zirenean, sartu eta kanpandorrera igo ziren. Kanpaien azpian, harrien artean, hautsez betetako orria aurkitu eta irakurtzen hasi zen Nahia:

AZKEN PISTA

*Isil-isilik
dagoen herria.
Isil-isilik
dagoen harrizko gurutzea.*

Pentsatu eta pentsatu ari ziren denak eta ordua aurrera zihoan.

–Ea... Harrizko gurutze bat herri isil batean... Zer izango da? –esan zuen Nahiak.

–Hilerrria, ermita... –esan zuen Andreak.

–Hori da! Hilerrria! Azken batean, hildakoen herria da!

Korrika abiatu ziren denak herriko hilerrira. Ailegatu zirenean, barrura sartu eta harrizko gurutzearen bila hasi ziren. Mikelek bere aurrean harrizko gurutze handi bat ikusi zuen eta lagunei esan zien ea ez ote zen hura izango.

–Bai, zeren harrizko gurutze bat baita. Gainera, hau baldin bazen azken pista, altxorrek hemen egon behar du –esan zuten lagunek.

Lagun guztiak gurutzera joan ziren. Atzealdean kutxa bat zegoen, altxorraren kutxa. Azkar-azkar kutxa ireki eta denentzako gozoki sorta eder bat zegoen.

–Baina nolatan daude gozoki hauek guztiak hemen? –esan zuen Josebak.

Amaia barrez lehertzen hasi zen.

–Kar, kar, kar! Gustatu al zaizue nik egindako jolasa? Zuekin gelditu eta gero banatu ditut orriak eta pistak –esan zuen Amaiak.

–Ba, orain, altxorra ireki eta gero, goazen gozokiak jatera! –oihukatu zuen Mikelek.

–Bai! –erantzun zuten besteek.

Garazi Unanue



Martin Iriondo

Preso jaio

Txantxangorri bat bizi da gure balkoian,
kaiola eder batean.

Ez da inoiz zintzilik egon pagoaren adarrean;
ez du inoiz txorimalo baten sudurrean dagoen
azenariorik jan;
ez du mundua ezagutu;
ez da inoiz egon teilatu batean;
ez da inoiz maitemindu.

Halere,
gure balkoian bizi den txoriak
segitzen du auzoa alaitzen;
ez dio kantatzeari utzi.

Marlen Guaye



Maialen Etxeberria

Ametsak

Amonak oparitutako maindire artean
ezkutaturik daude
nire ametsak.

Bullying-a ikastetxe guztietatik
desagertzea.

Zezen plaza guztiak hutsik
geratzea.


Munduko herri txikitako hizkuntza guztiak
errespetatzea.

Emakumeenganako indarkeriarekin
bukatzea.

Minbiziarekin dagoen nire izeba
sendatzea.

Jaiki naizenean,
maindire zuri artean geratu dira
ametsak,
kateatuta.

Noa Peiro



Aratz Salsamendi

Txokolatearen errezeta desagertua

Bazen behin familia bat, Suitzan bizi zena. Familia hori aitona-amonak, guraso bikoteak eta beren alabak osatzen zuten. Alabak Malen izena zuen. Malenek 12 urte zituen, kolore horiko ilea zuen eta begi urdinak. Malen beti pozik zegoen, beti laguntzen zion jendeari. Oso eskuzabala zen eta aitona-amonak bezalakoak izan nahi zuen. Berak oso gustuko zuen kozinatzea, irakurtzea eta misterioak argitzea. Handia egindakoan sukaldari ospetsu izan nahi zuen. Aitona-amonak oso ospetsuak ziren Suitzan, hango txokolate goxoenaren asmatzaileak baitziren. Malenen gurasoek asko bidaiatzen zuten. Malenek ez zituen asko ikusten eta denbora luzea ematen zuen aitona-amonekin.

Behin Malen aitona-amonekin kozinatzen ari zen eta neskak esan zien berek egiten zuten txokolatearen errezeta ikasi nahi zuela. Aitonak, ordea, ezetz erantzun zion, jende asko zebilela horren atzetik eta oso arriskutsua zela haien eskuetara iristea.

Beste egun batean, aurreko elkarrizketa izan eta astebetara, Malen bakarrik zegoen etxean bere lagun batekin. Bat-batean tinbrea jo zuen norbaitek eta Malenek atea ireki zion. Gizon bat zegoen ateko sarreran. Sukaldeko iturria konpontzera etorri zela esan zuen, eta Malenek sartzen utzi zion. Bi lagunek jolasten jarraitu zuten; baina, zoritxarrez, gizon hori ez zen etxeko ezer konpontzera etorri, baizik-eta etxean kamera batzuk jartzera. Gerora jakin zuten bezala, gizon hark Peru izena zuen eta oso gaiztoa zen. Malenen aitona-amonen errezeta nahi zuen lapurtu kameraren bidez.

Peruk kamerak jarri zituen toki askotan. Jakin nahi zuen zein zen momentu egokiena errezeta lapurtzeko. Peruk bere lana bukatu eta joan egin zen. Jakina, momentu hartan Malenek eta bere lagunak ez zekiten zer gertatu zen benetan. Ondorengo egunetan etxekoek ez zuten ezer arrarorik sumatu; baina, kameraren aurreko zuloxoari esker, Peruk etxean gertatzen zen guztia ikusten zuen. Etxea noiz geratzen zen hutsik kontrolatu nahi zuen; baina egunak joan, egunak etorri, ez zen horrelakorik gertatzen eta inoiz ez zuen momentu egokia aurkitzen. Egunduan, ordea, inor ez zegoen Malenen etxean: Malen bere lagunaren etxean zegoen, gurasoak bidaiatzen, eta aitona-amonak, berriz, erosketak egiten. Peruk pentsatu zuen hura zela momenturik egokiena errezeta lapurtzeko eta, orduan, poltsa bat eramanean zuen behar zituen tresna guztiak. Iritsi zen etxera, tresna bat atera zuen poltsatik eta atea ireki zuen. Peruk bazekien non gordetzen zuten errezeta, bideo-grabaketetan ikusia zuelako. Beraz, koadro batera joan zen eta botoi bat sakatu zuen. Berehala, koadroa desagertu eta errezeta atera zen. Peruk errezeta hartu zuen eta azkar-azkar joan zen etxe hartatik.



Beñat Uranga

Hurrengo egunean Malenen amona eta aitona bilobarengana joan ziren, oso larrituta, eta esan zioten txokolatearen errezeta desagertu egin zela. Malen, hori entzundakoan, larritu egin zen eta pentsatu zuen nola lagundu bere familiari. Biziki gustatzen zitzaion misterioak argitzea eta arazo hori berak argituko zuela esan zion tinko bere buruari.

Malenen aitona-amonak errezetaren gordelekua erakutsi zioten eta Malen aztertzen eta datu biltzen hasi zen. Horretan zebilela, botoi bat ikusi zuen. Malenek pentsatu zuen lapurrarekin eta errezetarekin nahitaez zerikusia izango zuela. Malenek telefonoa hartu zuen eta ezagutzen zuen gizon detektibe bati deitu zion. Erregutu zion mesedez bere etxera etortzeko; baina gizonak egun horretan ezin zuen eta hurrengo egunerako gelditu ziren. Malenek etxeko botoia aztertzea nahi zuen, bertan zegoen hatz aztarna norena zen jakiteko.

Malenen aitona-amonak oso larrituta eta goibel zeuden. Hala ere, Malenek egin zuenaren berri izatean, pixka bat poztu ziren. Hurrengo egunean, aginduta bezala, gizon hura etorri zen Malenen etxera bere maletina eta guzti. Aztertu zuen botoia, baina ez zen oso garbi ikusten. Detektibe lanetan urteak eta urteak zeramatzan eta bazekien aste bat itxaron beharko zutela zerbait garbia jakiteko.

Malen frustratuta sentitu zen. Beraz, buruari eragin eta egunero egindakoari errepasso zehatza eman zion. Orduan, Malen gogoratu zen nola, bere lagunarekin jolasten ari zela, gizon bat etorri zen etxera. Amonari galdetu zion zertara etorri zen gizon hura eta amonak ez zekien ezer horretaz. Zur eta lur geratu zen. Malenek, beraz, pista bat bazeukan lapurrarena; baina ez zekien non bizi zen. Gainera, gizona langilez mozorrotuta etorri zen eta bere benetako itxura oso bestelakoa izan zitekeen. Malenek pentsatu zuen berak bakarrik ezingo zuela lapurra aurkitu. Aste oso bat itxaron beharko zuen. Berentzat astebete itxarotea gehiegi zen; baina hala egin behar izan zuten. Aste luze-luze bat itxaron zuten, urtebete iruditu zitzaiena. Iritsi zen, ba, eguna jakiteko nor izan zen lapurra. Detektibea iritsi zen, berriro aztertu zuen botoia eta ziurtasun handiz esan zien Peru izan zela. Malenen aitona-amonak ez ziren harritu, Peru oso jeloskorra baitzen.

Segituan poliziarri deitu zioten guztiaren berri emateko. Hortik aurrerakoa oso azkar igaro zen: Peru kartzelara eramán zuten eta errezeta Malenen aitona-amonei itzuli zieten. Pila bat poztu ziren denak; gainera, errezeta ukitu gabe zegoen eta beste kopiarik ez zuten aurkitu.

Hamar urte pasa zirenean, Malenen aitona-amonek pentsatu zuten garaia zela beren gordelekua erakusteko. Hala, Malen eta bere aitona batera abiatu ziren, bata bestearen atzetik eta, halako batean, ezkutatutako ate bat ireki zen eta han barruan txokolate lantegia agertu zitzaion Maleni. Toki izugarri ederra zen. Malen, harrirituta, hitzik gabe geratu zen. Bere aitona-amonek esan zioten laga egin behar ziotela lantegiaz arduratzeari eta erabaki zutela Malen biloba kuttuna zela per-



Nora Veiga

tsonarik egokiena aurrerantzean horretaz arduratzeko. Malen, poz-pozik, saltoka hasi zen.

Egun hartatik aurrera Malen izan zen txokolate errezetaren jabe bakarra. Oso ondo bizi izan zen, hori baitzen bere betiko ametsa.

Nadeth Garate

Amona Petra

Martxoaren 8a

Gaur amona Petraren etxera joan naiz arratsaldean. Asteazkenetan lagunekin jolasten gelditzen naiz, baina gurasoek esan didate amona oso triste dagoela eta konpainia egitera joateko.

Amona egongelako besaulkian dago eserita, telebistari begira, baina bere begirada beste nonbait dago.

–Amona... Kaixo! Laia naiz. Zer moduz zaude? Zu bisitatzera etorri naiz!

Begira-begira geratu zait, ezagutuko ez banindu bezala.

–Amona, gaur jolas-orduan sokasaltoan ibili gara. Zuek zertan jolasten zineten txikitan? Lehengoan jubilatuta batzuk etorri ziren gelara eta esan ziguten txikitan xibarekin jolasten zirela, txorro-morrón, kanikatan, sokasaltoan, ezkutaketan...

Amonak ez du txintik atera. Bat-batean gogoratu naiz aitak txikitan kontatutako ipuin batez. Ipuin hark esaten zuen hitzik gabe geratzen diren pertsonak beldurtuta egoten direla gehienetan eta, agian, amona Petra beldurtuta dagoela pentsatu dut. Beldurra kentzeko errezetarik onena kantatzea zela esaten zuen ipuinak, eta horregatik pentsatu dut kantatzen hastea. Bertsolaritzan bertso zahar asko ikasi ditugu, eta *Salamankara* izeneko bertsoak hasi naiz abesten, goxo-goxo eta amonari eskutik helduta. Pixkanaka-pixkanaka amonaren begiak handitzen hasi dira eta ezpainetan irribarre txiki bat atera zaio. Eskua ere estutu egin dit.

Atearen sarraila entzun dut. Kolonbiatik etorritako Montse sartu da. Amonaren zaintzailea da duela bost urtetik.

–Amona, bihar berriz etorriko naiz!

Besarkada bat eman eta etxera joan naiz.

Martxoaren 9a

Atzo aginduta bezala, gaur ere amona bisitatzera joan naiz. Leku berean dago telebista ikusten, eta programa bera dauka jarrita.

–Amona, ba al dakizu zer gertatu zitzaidan igandean? Gurasoekin hondartzara joan nintzen kometarekin jolastera. Txiki-txikitik nuen kometa, gorri-gorria; Olentzerok ekarri zidan bost urte nituenean. Bat-batean, goraka joan zen eta ez zen itzuli, ez zuen nahi nirekin egon. Aitak esan zidan beste bat erosiko zidala, baina nik ez dut nahi besterik; nik nire kometa nahi dut!

Bat-batean, malkoak isurtzen hasi zaizkit. Konturatu naizenerako, amonak buelta erdia eman du, niri begiratu, eta eskuineko eskuaz kendu dizkit malkoak aurpegitik. Jarraian, besaulkitik altxatu eta bere logela aldera joan da.

–Amona, nora zoaz?

Ez dit erantzun, eta bere logelako biderei jarraitu dio.

Lauzpabost minutu pasatu ondoren, amona kutxa batekin itzuli da eta niri eman dit; ireki dudanean, kometa gorri-gorri bat ikusi dut, eta txundituta geratu naiz.

–Norena da hau?

Ez dut erantzunik jaso.

–Amona, gustura geldituko nintzateke, baina musika eskolara joan beharra dut. Bihar ere saiatuko naiz etortzen.

Martxoaren 10a

Gaur eskubaloiko entrenamendutik irten eta, berehala, amonaren etxera joan naiz.

–Kaixo, amona! Zer moduz zaude?

Amonak ez dit erantzun. Atzoko kutxa du ondoan.

–Amona, kometa ez dut hartuko; zeren-eta, berriz ere ihes egiten badit, gaizki pasatuko dut. Etxetik album bat ekarri dut, familiako argazkiekin. Elkarrekin ikusiko ditugu!

Mahai gainean ipini dut albuma eta amona ere begira jarri da: nire txikitako argazkiak, gurasoen ezkontzakoak, Pirritx eta Porrotxekin ateratakoak, familiako baserrikoak... Bat-batean, amona oso urduri jarri da, eta baserriaren ondoko zuhaitza seinalatzen hasi zait.

–Zergatik jarri zara hain urduri, amona? Zerbait gogora ekartzen al dizu zuhaitz horrek? Lasai, esango diet gurasoei eta larunbatean baserrira joango gara, nahi baduzu.

Amona begira-begira geratu zait, bere begiek distira berezi bat dute.

–Agur, amona! Agian, larunbatean etorriko naiz ama eta aitarekin!

Martxoaren 13a

Asteazkenean etxera iritsi, eta segituan kontatu nien gurasoei amonarekin gertatu zitzaidana.

–Onena baserrira joatea izango da –esan zidan amak, kezkatuta.

Larunbata da eta gurasoekin batera amonaren etxera joan gara.

–Lasai, Montse, amonarekin baserri aldera goaz –esan dio aitak zaintzaileari–. Bazkaltzerako etorriko gara!

Nik lagundu diot Montseri amona janzten: gona beltza, alkandora mahuka luzea eta jertse marroia. Montsek orraztu du.

–Hotza egiten du eta hobe izango duzu berokia janzten baduzu, ama! –esan dio nire amak.

11:00ak aldera irten gara etxetik. 11:20an pagoaren ondoan geunden. Amona makuluaz lurra zulatzen hasi da. Ni makurtu naiz eta bi eskuez bost bat minutu aritu naiz lurra atera eta atera. Bat-batean, zerbait ukitu dut.

–Kutxa bat da!

Ez zegoen zaila irekitzen. Barruan eskutitzak zeuden. Amonak bat hartu, eta irakurtzen hasi da. Bat bukatu eta bestea... Baxu irakurtzen zuen. Ordu erdi bat pasatu eta...

–Sartu berriro kutxa, Laia! Poza itzuli da berriro nire bizitzara!

–Amonak hitz egin du!

Ni ere, triste nagoenean, pago ondora joango naizela eta eskutitzak irakurriko ditudala pentsatu dut.

Martxoaren 14a

Gaur igandea da eta amona Petraren etxera joan gara bazkaltzera. Amona sukaldean aurkitu dugu, mamia egiten. Igandetan Montsek jai izaten du.

–Kaixo, amona! Zer moduz?

–Ondo. Aspaldian ez naiz egon lagunekin. Gustatuko litzaidake zaharren etxera joatea.

–Bai, ama, goazen –esan dio alabak.

Amona bere lagunekin hitz egiten hasi da.



Onintza Gonzalez

–Senarrarekin hitz egiten egon nintzen atzo, eta esan zidan ez egoteko triste eta barre asko egiteko.

–Gurekin elkartuz gero, algara nahiko egingo den! –esan dio garagardoa aurrean daukan amona batek.

–Ama, amona sendatu egin da!

–Eskerrak!

Noa Peiro



Arantza Igartua

Amona onenak

Amonaren loreak,
munduko politenak.
Amonaren maitasuna,
bizitzako bakarra.
Amonaren bazkaria,
dagoen onena.
Amonaren bufanda,
guztietatik goxoena.

Amona onenak,
amona onenak...
Zer egingo nuke nik
zuek biok gabe?
Txiki-txikitatik
zuek ni zaintzen,
eta ordua iritsiko da
nik zuek zaintzeko.

Gure superheroiak,
gure superheroiak...
erori eta altxatu direnak,
momentu onak eta txarrak
igaro dituztenak,
eta asko demostratu dutenak.
Orain atsedena hartzeko denbora
behar dute gure amonek.

Nagore Iturralde



Leire Olariaga

Konpromisoa

Hitzematen dut ez naizela
zuek espero duzuen neska perfektua.
Eta askotan, nahiz eta irribarretsu egon,
barrutik egongo naizela ehun zatitan puskatua.

Egin nituen negarrek ez didate ezertarako balio...
gainera, itsusia zen nire aurpegi gazitua.

Ez nuen ondo pasa lehengo udan,
baina etorriko da hurrengo urteko abuztua.
Kalean parrandan gehienetan,
guztiok egongo gara lelotuta.

Denen irribarreak gustatzen zaizkit,
eta zuen algarekin nago mozkortua.
Baina jakin ezazue guztiok
nire bihotzean jasota zaudetela,
zuek baitzarete nire altxor preziatua.

Leire Olariaga



Nahia Stapa

Beti elkarrekin

Bazen behin Maite izeneko 37 urteko emakume bat. 13 urteko Alejandra alabarekin bizi zen Mutrikun. Izan ere, bi urte lehenago, senarrak azken agurra eman zien Maite eta Alejandrari, bihotzeko baten ondorioz. Baina, gai hori albo batean utzita, Maiteren bizitza ez zen beste munduko ezer: lana, familia...

Neguko egun hotz batean Maiteri izugarritzko sabeleko mina jarri zitzaion. Baina, Alejandra eskolan zegoenez, bakarrik zegoen etxean. Telefonoa urrun zegoen eta ezin zuen mugitu; horregatik, ezin izan zuen laguntza eskatu. Bi ordu zail pasatu ondoren, konortea galdu zuen eta, handik minutu batzuetara, Alejandra itzuli zen eskolatik. Ama lurtean zerraldo ikusi zuenean, 112ra deitu zuen. Ospitalera iritsi zirenean, Maite hodiz josi zuten eta, hurrengo egunean, bere onera etortzen hasi zen. Esnatu zenean, Alejandra zuen alboan negarrez eta, nahiz eta Maitek lasai egoteko esan nahi zion, ez zuen indarrik izan. Astebete igaro zuen Maitek ospitalean, eta egunero-egunero egon zen Alejandra bere ondoan, eskolara joan gabe eta ospitaleko lurtean lo eginez.

Etxera itzuli zirenean, beti bezala jarraitu zuten beren eguneroko bizitzarekin: eskola, lana, familia... Baina Maitek bazekien horrek ez zuela askoz gehiago iraungo; izan ere, etxera itzuli baino lehen, medikuekin bakarka hitz egin zuen eta ezin zuen sinetsi entzuten ari zena: gibelesko minbizia zuela eta, ordurako, zabaldua zeukala gorputz osoan. Ezin zen ezer egin eta, gehienez, beste bi edo hiru urte biziko zen.

Nahiz eta Alejandrak ez zuen ezer nabaritzen, Maitek gau eta egun igarotzen zuen komunean sartuta negarrez, bere azken eguna izan zitekeela pentsatzen. Gainera, bera hilez gero, ez zekien norekin utzi Alejandra: aitona-amonak ez zituen bizirik eta izeba-osabekin ez zuen ia harremanik.

Alejandra eskolan zegoen batean, Maite bere anaiaren etxera joan zen, nahiz eta erlazio askorik ez izan. Minbiziarena azaldu zionean, negar batean hasi zen anaia, eta Maite falta zen egunean Alejandra zaintzeko eskaini zuen bere burua. Handik aurrera Maiteren anaia Jose ostiralero joaten zen Maiteren etxera, Alejandrarekin erlazioa hobetzeko asmotan.

Arratsalde epel batean, ohean telebista ikusten ari zirela, Maitek izugarritzko kalanbreak zituen sabelean, eta Alejandrari laguntza eskatu ahal izan baino lehen, konortea galdu zuen berriz ere.

Begiak zabaldu zituenean, ospitalean zegoen. Alejandra eskutik helduta zuen, eta medikuz inguraturik zegoen. Aurreko egoera bera zen. Berriz ere begiak itxi eta, konturatu gabe, malko bat atera zitzaion. Baina segituan lehorte zuen, Alejandrak ez zekien-eta zer gertatzen ari zen.




Julen Beraza

Gau batean, ospitalean zeudela, Maitek nabaritu zuen ez zegoela ondo, eta Alejandrari esan zion ohean sartzeko bere alboan. Arnasa hartzea kosta egiten zitzaion eta indarrik gabe sentitzen zen. Biak heldu-heldu egin ziren, eta Maitek alabaren ilea usaindu zuen, haren usain gozoa betiko gogoan edukitzeko. Alejandrak nabaritu zuen ez zegoela ondo, eta medikuei deitu zien. Ziztu bizian etorri ziren eta, handik minutu batzuetara, Jose etorri zen, urduri. Biek, Josek eta Alejandrak, Maiteri eskutik heldu zioten, eta hark, arnasa sakon hartuz, esan zuen:

–Zaindu eta maita ezazue elkar. Asko maite zaituztet.

Orduan jakin zuen Alejandrak hura zela bere ama bizirik ikusiko zuen azken eguna. Maitek begiak itxi zituen eta, azken arnasa hartuz, zerura joan zen.

Candy Ostolaza



Sarai Garmendia

Legearen aurka

1993an Kekoak Scott Lee izeneko mutil bat jaio zen familia behartsu batean. Kekoaren aita droga munduan zebilenez, bere amak beste gizon batekin alde egin zuen. 17 urterekin etxetik alde egin zuen Kekoak eta, dirua lortzeko, drogen munduan sartu zen. *Los Vagos* izeneko banda batean sartu zen eta haiantzako lanak egiten zituen. Haiantzat lan egin arren, beti zorretan zebilen. Egun batean bandako nagusiek deitu zioten, esanez presidentea, ministroa eta gobernadorea hiltzen ez bazituen, bera hilko zutela. Politikari horiek lege berri bat onartu zuten drogen kontra, azken urteetan droga hauek izan zuten gorakadagatik: metaanfetaminak, kokainak eta heroinak. Kekoak politikariak hiltzen bazituen, bizitza osorako diru nahikoa jasoko zuen. Bandakoek hiru arma eman zizkieten politikariak hiltzeko: frankotiratzaile subfusila, AK-47 bat eta *Desert Eagle* bat.


Legea Hawaiiaren aurkeztuko zenez, astebete lehenago, ministroa eta presidentea gobernadorearekin elkartu ziren bertan, legearen aurkezpenaz hitz egiteko. Kekoak plan bat egiten hasi zen hiru politikariak uhartean hiltzeko. Waikikiko Hilton hotolean zeuden hiru politikariak lotan eta aurkezpena Ala Moanako konbentzio zentroan zen. Kekoak ingurua aztertzen hasi zen, hiru politikariak hiltzeko leku ona bilatzeko. Hotelaren eta konbentzio zentroaren artean, pisu askotako parking publiko bat aurkitu zuen eta pentsatu zuen onena parkingaren azken pisuan jartzea izango zela. Aurkezpenaren ordua iritsi zen eta hiru politikariak legearen aurkezpena atera ziren, milaka pertsona eta telebista zain zituztela.

Kekoak dena prest zeukan eta, ikusi zuenean legea sinatu behar zutela, apuntatu eta gobernadorea eta ministroa hil zituen. Presidentea korrika joan zen hotelera, ezkutatzera. Hoteleko atean zegoenean, Kekoak tiro egin zuen eta presidentea ere hil egin zuen.

Estatu Batuetako telebista guztietan ikusi zen ministroa eta gobernadorea hil ziren momentua.

Estatu Batuetako polizia guztiak hiltzailearen atzetik zebiltzan; baina, denen artean, erabaki zuten Hawaiiiko gobernadorearen polizia pribatua izatea ikerketa aurrera eramatearen arduraduna.

Taldea lagun hauek osatzen zuten: Steve kapitaina, Daniel inspektorea, Olivia inspektorea, Diana inspektorea, Max forentsea eta Grace balistikakoa. Seiak aurkezpeneko tokira joan ziren, gorpuak ikustera eta, ondoren, hoteleko atera. Gorpuetan munizio militarra zegoenez, hasieran militar bat izan zela pentsatu zuten; baina, ondoren, konturatu ziren munizio hori edozeinek eros zezakeela. Orduan armategi guztietara joan ziren, ea dendariak erosleak datuak ematen zizkieten. Denda batean eman zieten erosleak zerrendan banda baten izena zegoen: *Los Vagos*. Banda oso indartsu eta arriskutsua zen eta Stevek esan zien bere laguni



Naroa Larreta

ea zer iruditzen zitzaien kartzelen zeuden bandakoekin hitz egitea. Orduan, Daniel eta Steve kartzelara joan ziren. Kartzelan ez zuten ezer lortu, baina balistikakoak esan zien munizioan aztarnak zeudela eta aztarna horiek Kekoak Scott Lee-renak zirela. Orduan, Kekoari buruzko informazio gehiago lortu zuten eta harrapatzera joan ziren.


Kekoak konturatu egin zen poliziak bere atzetik zebiltzala. Polizia guztiak Kekoak harrapatzera joan zirenean, espero ez zutena gertatu zen. Kekoak eta bi lagun etxean zeuden, poliziei itxaroten eta, etxeko atea jo zutenean, hiru gaiztoak tiroka hasi ziren eta Steve zauritu zuten, bularrean bi tiro emanda. Ordu erdi eta gero Kekoak ihes egin zuen eta Steve ospitalera eramane zuten. Hurrengo egunean Steve ospitalean zegoen eta Daniel, Olivia, Max, Diana eta Grace bisitan joan zitzaizkion. Steve oraindik lo zegoen, baina hobeto sentitzen zen. Medikuek esan zuten segituan jarriko zela ondo, baina pixka bat deskantsatu behar zuela. Kekoak, bitartean, arma gehiago erosten zebilen eta bere bandakoekin hizketan ari zen, dirua hartzeko.

Hurrengo egunean polizia guztiak Kekoaren atzetik joan ziren. Kekoak auto bat hartu eta ihes egin zuen, baina Steve eta Daniel haren atzetik joan ziren eta, orduan, Kekoak *Los Vagos*en barku batera igo zen. Stevek eta Danielek poliziaren barkua hartu zuten eta oso azkar joan ziren Kekoaren atzetik. Momentu batean milaka polizia zituzten barkuaren ondoan, baina poliziek ez zekiten Kekoaren barku handi horretan milaka pertsona zeudela. Denak tiroka hasi ziren, baina Steve barkuaren atzealdera joan eta barkura igo zen. Daniel bere atzetik joan zen eta biak barkuan tiroka hasi ziren. Kekoak bakarrik falta zen eta bat-batean soinua entzun zen uretan. Kekoak igeri zihoan ihesi eta Steve haren atzetik joan zen. Kekoak urrutiratzen ari zen, baina Stevek gogor egin zuen igeri. Kekoari hankatik heldu zion eta hark ostikoa jo zion eta biak borrokatzen hasi ziren, hasieran uretan eta gero barkuan. Borroka latza egin eta gero, biak odoletan zeudela, Stevek Kekoak lurrera bota zuen eta haren gainean jarri zen, ez mugitzeko. Orduan, Daniel iritsi zen eta Kekoak atxilotu zuen.

Kartzelara eramaterakoan, Stevek tratu bat egin zuen berarekin eta, horrela, *Los Vagos* banda desegitea lortu zuten.

Steve sendatu egin zen eta bere lanarekin jarraitu zuen.

Irene Manterola



Sofia Lertxundi

Muki zapiak

Gutxi baloratuak,
asko erabiliak...
Horiek dira
gure paper lagungarriak.


Erabili eta bota,
zikindu eta tolestu...
Erabilera mota tristea
dute eskuratu.

Falta zaizkigunean,
haserretu;
eskura ditugunean,
mespretxatu.

Halere, horiek dira
gure lagunak,
beti gure alboan
dauzkagunak.

Beraz, lagun, gogoratu,
nahiz eta gauza sinplea izan
berak gabe gara haserretu,
beharrezkoak direla ez ahaztu.

Sara Mujika



Izaro Gonzalez

Faltan

Faltan botatzen dut,
faltan, zure haize epela,
hondartzara joatea,
lanik ez egitea,
ia hiru hilabeteko opor luzeak...

Faltan botatzen dut,
faltan, zeruaren garbitasuna,
zure olatuen soinua,
itsasoaren ur hotza,
baina aldi berean epela...

Faltan botatzen dut,
faltan, eguzkiaren goxotasuna,
mendian txoriak kantari egotea...

Poz handia sentitzen dut
zu iristean,
baina beti kostatzen zait agur esatea...
Etor zaitetz lehenbailehen,
uda maitea!

Nerea Uranga



Eneko Kaperotxipi

Dena da posible

Tomas Madrilen bizi den 17 urteko mutiko bat da. Zoritxarrez, mutiko herrena da, orain dela hiru urte, 14 urte zituenean, auto istripu bat izan zuelako, bere aita Carlos eta ama Mariarekin. Negua zen eta errepidea izoztuta zegoen; aita ari zen gidatzen eta ezin izan zuen autoa kontrolpean hartu; ondorioz, zuhaitz baten kontra jo zuten eta autoa buruz behera geratu zen. Autoak Tomasen hanka harrapatu eta txikituta geratu zitzaion. Medikuek ez zuten beste erremediorik izan Tomasen hanka moztea baino. Aitak eta amak, berriz, ez zituzten oso ondorio larriak izan.

Gaur egun Tomas ikastolara joaten da, baina ez du lagunik; izan ere, bere arazoagatik ezin du kirolrik egin eta arratsalde guztiak ospitalean pasatzen ditu errehabilitazioan, oraindik ez delako ohitu bere metalezko hankarekin. Egunero ikastolatik bueltan etxera iristen denean, bere gelara joaten da segituan, ordenagailuan ibiltzera.

Goizean goiz esnatu eta ispiluan begiratu dio bere buruari. Tomas ez dago konforme bere gorputzarekin, mutikoa oso kirolari ona baitzen istripua izan baino lehenago. Gosaltzera jaisterakoan, konturatu da ama eta aita sukaldean daudela eta esan die:

–Aita, ama... Gauza bat esan behar dizuet.

–Zer esan behar diguzu? –esaten du amak, harrituta.

–Ba... gauza da kirola egiten hasi nahi dudala –esaten du Tomasek, urduri.

–Baina egiten duzu kirola ospitalean! Arratsalde guztiak pasatzen dituzu errehabilitazioan.

–Hori da kontua. Egun guztiak pasatzen ditut errehabilitazioan eta horregatik ez daukat lagunik. Saskibaloian hasi nahi dut jokatzeko!

–Ez dakit ideia ona den. Seguru zaude hortaz?

–Gaur bertan ospitalera joango gara medikuei galdetzera ea saskibaloian jokatzeko aukera duzun eta, hala bada, segituan joango gara ikastolako saskibaloiko entrenatzailearekin hitz egitera. Zer iruditzen?

Ama harrituta geratu da Carlosen erantzunarekin; Tomas, berriz, pozik dago.

–Primeran! –esaten du alai Tomasek.

Tomasek gosaltzen bukatu du eta bere gelara igo da, ikastolarako gauzak prestatzera. Mariak esaten dio Carlosi:

–Ziur al zaude hortaz?

–Ez dakit zer esango duen entrenatzaileak, baina Tomasek arrazoi du. Mutikoak aukera bat merezi du.

–Ados.

Tomas logelatik jaitsi, eta ikastolara joaten da. Beti bezala, ez da ezer berria gertatzen ikastolan. Ikastolatik ateratakoan, segituan joaten da autoen aparkalekura, ikustera ea bere aita hor dagoen. Hogei minutu itxaroten egon ondoren, nazkatu egiten da eta etxera joaten da. Etxera iristerakoan, begiratzen du ea bere aita han dagoen, baina ez dago. Gauean, afaltzeko orduan, Tomas bere gelatik haserre aurpegiarekin jaisten da eta bere aitak galdetzen dio ea zer gertatzen zaion.

–Zer gertatzen zaizu, Tomas?

–Zer gertatzen zaidan? Ba, agian, goizean nire aitak esan didala bila etorriko zitzaidala arratsaldean ospitalera joateko eta medikuekin hitz egiteko eta, ondoren, saskibaloiko entrenatzailearengana joango ginela! Hogei minutu egon naiz zure zain aparkalekuan eta ez zara etorri. Gainera, zergatik nagoen haserre galdetzen didazu? –esaten dio Tomasek, oso haserre.

Aitak ezer erantzun baino lehenago, Tomas bere gelara joaten da; eta hurrengo egunean ere gurasoei ezer esan gabe joaten da ikastolara. Tomasek aste hori oso gaizki pasatzen du; izan ere, beste mutikoek bezala nahi du jolastu, baina ezin du eta konturatzen da desberdina dela.

Baina Tomas ez da errenditzen.

Hilabete bat geroago etxera deitzen dute ospitaletik, esanez badirela hiru aste Tomas ez dela ospitalera agertu eta gurasoak harrিতuta geratzen dira; izan ere, egunero uzten dute Tomas ospitale aurrean. Gauean, afaltzen ari direnean, amak galdetzen dio Tomasi:

–Zer moduz zoaz errehabilitazioarekin?

–Oso ondo. Nik uste dut hobetzen ari naizela –esaten du urduri.

–A, bai! Hori kasualitatea! Gaur ospitaletik deitu dute, esanez azken hiru asteetan ez zarela errehabilitaziora joan. Egia al da hori? –galdetzen dio aitak.

–Zertan zabilta, Tomas? –galdetzen du amak.

–Ez daukat gogorik horri buruz hitz egiteko –esaten du Tomasek bere gelarantz doan bitartean.

Carlos Tomasen atzetik joaten da, azalpen baten bila:

–Kontatuko didazu, mesedez, zertan zabilta?

–Ongi da! Kontua da hilabete bat daramadala saskibaloian jokatzen nire antzeko arazoa duten beste mutiko batzuekin. Kasualitatez, ospitaletik ez oso urrun entre-

natzen dute saskibaloian. Ez gara oso onak, baina lagunak egin gara eta, gainera, hobetzen goaz pixkanaka.

–Zer ondo! Asko pozten naiz zuegatik, eta barkatu egun hartan zure bila ez joateagatik.

–Lasai, aspaldi barkatu nizun.

Amarengana joaten dira gertatzen dena kontatzera eta, dena argitu ondoren, familiak lehenago zuen konfiantza berreskuratzen du.

Hilabete bat pasatu ondoren, Tomasen taldekoek, asko entrenatu eta gero, pentsatzen dute hoberena ligan sartzea izango dela. Lehenengo partidari galdu egiten dute; izan ere, urduritasunaren ondorioz, gaizki jokatu dute, baina ez dira errenditzen eta hurrengo partida Tomasen ikastolako aurka da. Tomas oso urduri dago talde hartako jende asko bere laguna delako; baina, hala ere, ikaragarri ondo jokatzen dute eta irabazi egiten dute. Bai Tomasen taldea, bai kontrako taldea eta bai gurasoak harrিতuta geratu dira. Ez dira errenditzen eta ligako finalera iristen dira; baina ezin izan dute irabazi. Hala ere, oso pozik daude taldeak lortutako emaitzarekin.

Amaia Rodriguez-Sierra



Nahia Uranga

Pentsamendu itxien aldaketak

Gure enpresarekin tratua egiteko zalantza zuten txinatarrek kontratua azkar batean sinatu dute, erabat konbentzitura eta hitzaldiarekin txundituta. Seguru nago honekin nagusiak enpresan mantenduko nauela; izan ere, hitzaldiko datu txundigarri horiek nik landu ditut.

Lan egiten dudan enpresa multinazionala da, munduko indartsuenetako bat eta, azken aldian, diru kopurua gehitzen doan heinean, langileen lana egiten duten robot gehiago erosten eta, ondorioz, langileak kaleratzen ari da. Lehengo astean, bulegoko marrazo handienetako bat, beste enpresetatik etortzen ziren inportatzaile denekin negozioak lortzen zituen emakume bat, egotzi egin zuten; baina ez nau harritzen, emakumea eta azal beltzekoa baitzen. Nire ustez, enpresari irudi txarra ematen zion horrelako bat edukitzea jendaurreko lanean. Hori dela eta, ni seguru nago enpresan finkatuta mantenduko nautela, gizonezkoa, gaztea eta azal zurikoa izanda, irudi txukuna emateaz gain, ona naizelako nire lanean. Nire pentsamenduetan murgilduta nagoen bitartean, telefonoak jo du bulegoan. Nire nagusia da.

–Xabier! Igo nire bulegora, mesedez.

–Ongi, Eduardo! Orain joango naiz.

Igogailuan nagusiaren bulegora noan bitartean, haren deiaren arrazoien hipotesiak egiten hasten naiz. Beharbada, bulegoz aldatuko nau edo, are eta hobe, soldata igoko dit! Jada atean, gorbata ondo jarri eta atea jotzen dut.

–Aurrera, Xabier.

–Egun on, Eduardo. Eser naiteke?

–Noski. Ea nola azaltzen dizudan... Dakizunez, gure lantegia aurreratzen ari da robotekin eta, hori dela-eta, langile gutxiago behar ditugu pixkanaka-pixkanaka. Betidanik langile ona eta jatorra izan zara, eta asko sentitzen dut hau esan beharra: bilera bat egin ondoren, zu joango bazina, zure falta ez genuela asko sumatuko ikusi dugu eta, ondorioz, zu lantegitik kanporatzea erabaki dugu. Hala ere, hil honetako soldata kobratuko duzu, eta gaurko eta biharko egunak dituzu bulegotik gauzak jasotzeko. Plazer bat izan da zurekin lan egitea.

–A, ez nuen espero. Ongi da. Oraintxe hasiko naiz nire gauzak gordetzen.

–Xabier! Joan baino lehenago, zorionak txinatarrekin lotu den negozioan parte handia hartzeagatik. Mesede bat egin diguzu txinatarrak konbentzitzen zure datuekin.

–Eskerrik asko eta ez horregatik... suposatzen dut. Agur!

Ez nuen batere espero. Xabier Odriozola lanetik kanporatu? Harrituta geratu naiz. Enpresan daramatzadan lau urteetan gogor lan egin eta gero, robot zahar baten truke aldatu naute. Baina bat zuloan erortzen den bezala, atera ere egiten da, eta ni ez naiz besoak gurutzatuta geratuko. Lantegi honetan ez banaute nahi, beste bat bilatuko dut, norbaitek kontratatu arte.

Bulegoan nituen objektu eta oroitzapen gutxiak bildu, eta egun berean bulegoa utzi dut hutsik. Ez dut pentsatzen bihar berriro eraikuntza honetara itzultzea.

Etxera ailegatzerakoan, egin nahi dudan gauza bakarra lo egitea da; beraz, horixe egiten dut.

Hurrengo eguna da jada, eta atzo lanetik kanporatzeak ez nau geldirik edukiko. Ez naiz errendituko eta gaur bertan hasiko naiz beste lan bat bilatzen. Nire curriculumaren kopia mordoa egin dut, eta kalera noa, ea zer aurkitzen dudan ikustera.

Hasieran ez dut lan interesgarririk edo egokirik aurkitu, denek zuten atzera botatzen zidan arantzaren bat: gai aspergarria, nire pisutik urruti, soldata kaskarra... baina, halako batean, atentzioa eman dit administrari baten bila ari direla jartzen duen lokal handi batek. Sartu egin naiz.

–Egun on. Erakusleihoan duzuen albistea ikusi dut, eta lana eskuratzeko boluntario bezala aurkezteko prest nago, administraria bainaiz –esaten diot emakumeari.

–Ongi da. Zure curriculumua jaso baino lehen, lanpostuari buruzko informazioa emango dizut. Gure erakundea txikia da, eta gure lana ikastoletan berdintasuna bermatzea da; horretarako, homosexualitateaz, arrazismoaz edo matxismoaz hitz egitera joaten gara. Eskatzen ditugun baldintza guztiak betetzen badituzu, hilean 1.800€ kobratuko zenituzke, diru kontuetan ez ditugulako arazoak eta administrari lanetan zu bakarrik arituko zinatekeelako. Ondo iruditzen bazaizu, zure curriculumua eman eta deituko dizugu onartua bazara.

–Soldata egokia iruditzen zait, baina gaia ez da nire espezialitatea. Hala ere, zuek nire curriculumua aztertu eta, kontratatu nahi banauzue, deitu, agian baiezkoa emango dizuedalako. Ondo ibili. Agur!

–Bai, berdin.

Etxera ailegatutakoan, orientatzaileen elkarte horri buruz pentsatzen hasi naiz. Nire auzoaren oso gertu dago bulegoa, fundamentuzko soldata bat ordaintzen dute eta nirea bezalako esperientzia duen administrari bat ari dira bilatzen. Pixka bat atzeraka eragiten didana elkartearen gaia da. Gaur egun, mundu osoa erreboluzionatzen eta iritziz aldatzen ari da, pentsamendua irekiz eta munduaren ikuskera aldatzen. Baina, horrelakoetan, niri askoz ere gehiago kostatzen zait, eta oraindik ez dut nire pentsamenduko atak irekitzeko pausua eman. Eta honekin esan nahi dut, oraindik homofobia, arrazista eta matxista naizela. Ez da erabat harro nagoenik, baina beti horrela pentsatu izan dut eta inoiz ez naiz geratu ea hori

ondo ala gaizki dagoen pentsatzera. Txikitatik ikusi ditut neskak eta mutilak beren artean maitemintzen, denak azal kolore zurikoak, neskak arrosarekin sukaldean eta mutilak urdinarekin kanpoan lan egiten. Badakit hori ez dela aitzakia, baina horrelako egoera aldaketetan beti izan naiz mugimendu gutxiko eta ohituretako pertsona. Hala ere, pentsatzen dut inoiz ez dela berandu zenbait gaitaz konturatzeko eta iritziak zuzentzeko.

Hurrengo egunean, nahiko berandu esnatzerakoan, eguna etxean pasatzea eta lasai hartzea erabakitzen dut, bart berdintasunari buruzko artikulu asko irakurtzen egon ondoren. Nire pentsamendua aldatzeko ordua iritsi dela iruditzen zait. Izan ere, ukaezina da mundua aldatu egiten dela eta egoerara egokitu behar garela, bestela atzean geratzen baikara gizartea aurrera doan bitartean. Bart, artikuluak irakurtzeaz gain, dokumental bat ikusi nuen. Beren sexualitateagatik, azal koloreagatik edo sexuagatik baztertzeko zuten jendea zen protagonista. Bideo horrek nire pentsamenduari erabateko buelta ematea lortu zuen, pertsona guzti horien lekuan jarri bainintzen. Horregatik, orientatzaileen elkarteak deitzen badit, baiezkoa emango diot, zerotik hasteko aukera paregabea iruditzen zaidalako.

Nire laranja-zukua edaten eta gaiari buruz pentsatzen ari naizenean, mugikorrak jotzen du. Mugikorra hartzerakoan, telefono ezezagun bat dela konturatzen naiz eta deia onartzen dut:

–Nor da? –galdetzen dut zalantzazko tonu batekin.

–Egun on, orientatzaileen elkarteko emakumea naiz. Atzo gure elkarteko bulegoan curriculum bat utzi zenigun, ea lanposturako egokia zinen jakiteko. Gaur goizean goiz bildu gara elkarteko langileak, eta zure prestakuntza ikusi eta gero, baldintza denak ondo betetzen dituzula adostu dugu. Hori dela eta, gure aldetik, lanpostua zurea izango litzateke. Zer diozu?

–Bai, luze pentsatzen egon ondoren, lanpostua onartzea erabaki dut.

–Bikain. Hala bada, datorren astelehenean goizeko 08:30ean hasi zaitezke lanean. Edozein zalantza edo arazo baduzu, astelehenean argituko dugu bulegoan. Ondo izan!

–Berdin!

Astelehena iristen denean, ondo mentalizatuta eta positiboa izateko helburuarekin ateratzen naiz etxetik nire bulego berrira. Iristen naizenean, betiko emakumea dago nire zain. Nire bulegora ongietorria eman bezain laster, nire ondoko aulkian eserita eta ordenagailuan arreta jarrita dagoen Marilu izeneko emakumeak asentatzen lagunduko didala esaten dit eta, ondoren, korridore luzean desagertzen da. Mariluk begiratu eta irribarre bero bat oparitu ondoren, dena azaltzen dit pausoz pauso.

★★★

Bi hilabete pasatu dira bakarrik, eta ezin dut sinetsi nire bizitza hainbeste aldatu denik. Orain dela bi hilabete, pertsona erabat toxikoa nintzen, eta orain ez dut aurreiritzirik eta kritika konstruktiboak bakarrik egiten ditut. Eta hau guztia Marilugatik izan da, beragatik bakarrik. Jada hilabete eta erdi da ateratzen ari garela, eta eduki dudan erlazio politena eta osasuntsuena da oraingoz. Mariluk nik baino zazpi urte gehiago ditu, jatorriz Txinakoa da eta transexuala da. Bera mutila zela jaio zen Txinan, baina bi urterekin Euskal Herrira ekarri zuten. Markos izena jarri zioten adopzio-gurasoek; baina, nerabezaroan, ez zen identifikatuta eta gustura sentitzen bere buruarekin eta gorputzarekin eta, horregatik, sexuz aldatu zen 19 urterekin. Erabat maiteminduta nago. Bera espeziala, eskuzabala, alaia, jatorra eta dibertigarria delako; baina, gehienbat, bihotz oso ona duelako eta, jendearen edertasuna ikusterakoan, barrukoari erreparatzen diolako. Jada batera ari gara bizitzen, eta elkarbizitza lasaia eta eroso da. Bikote bezala denbora gutxi daramagun arren, jada ezkontza planak bururatu zaizkigu.

Honekin guztiarekin atera dezakedan ondorioa, gaztelaniazko esaldi zaharraren itzulpenak garbi adierazten du: *Ez esan inoiz: ur honetatik ez dut edango.*


Naroa Arriaran

Krisia

Krisia, dakarkizu pobrezia,
negarra eta zoritxarra.
Zure erruz
dabil jendea eskean,
dabil jendea lapurtzen kalean,
ekarri duzu nahigabea.
Langabezia duzu indartu
eta biziezina zabaldu,
Krisia, nola zara ausartu?

Herrialdeak dituzu ahuldu,
pertsonek akabatu
eta dena txikitu.
Proposamen bat dut,
ea gustuko duzun:
urrun joan zaitez,
mundua lasaitzeko,
dena hobea izateko,
zoritxarra hiltzeko,
eta denak
zorientsu bizitzeko.
Ezin zaitut behartu,
baina bai aholkatu,
eta ez da nire eskaera,
baizik eta guztiona.
Krisia,
zer diozu?

Gorka Amas



Alex Agirre

Kontrako presentziak

Lapurrak, poliziak...
politikoak, Gobernu Kanpoko Erakundeak...
zintzoak, gaiztoak...
zuriak, beltzak...
denak desberdinak
beren artean;
horrela al da
itzalpean?

Ez dakigu nola jokatu haien aurrean,
kontrakoak ematen dute beren artean,
batek positiboa,
eta besteak negatiboa,
baina uste duguna baino antz handiago dute.

Lagunak bezalakoak dira gehienak,
batzuk zintzoak,
besteak gaiztoak...
ematen du ez direla ondo konpontzen;
baina, gutxien espero dugunean,
hor daude bata besteari laguntzen.

Horri esker konturatu gara
kontrakoak ematen duten gauzak
oso antzekoak direla,
eta, agian, zeure etsaia
uste duzuna baino hobea dela.

Sergio Faro



Sara Arruti

Silueta gorria

Zuhaitzek aspaldi eroriak dituzte beren hosto zimelak. Negua gogor jotzen ari da aurten. Urtarrileko azken egunak iritsi dira. Gaur goizean hotz handia egiten du, teilatuak izotzez zuri esnatu dira, putzuak izotz kapa lodi batez estalita daude eta zubi zaharrak ere izugarrizko izotz kandelak ditu.

Telefono hotsak esnatu du Mikel Ormaetxea inspektoreordea. Iratzargailuari begiratu dio: astelehena, goizeko zazpi eta erdiak. Gaur ere atzoko amesgaizto bera. Silueta gorri erraldoi bat dabilkio atzetik, harrapatu nahiko balu bezala. Halako batean, ametsetako silueta burutik ezabatu eta deia hartu du:

–Ormaetxea inspektoreordea, esan?

–Larraitz naiz, kasu berri bat dugu. Ibai bazterreko lezka artean, gorpu bat aurkitu dute. Gizonezkoa, 50 bat urte inguru, zulo bat du kokotsaren azpian. Kasua guri eman digute.

–Laster naiz.

Inspektoreordea autoa hartu eta gorpua aurkitu duten tokirantz abiatu da. Iristean, kosta egin zaio bere lankideak bilatzea, padurak zeharkatu behar baitira toki horretara iristeko. Bi aldiz hanka lokatz izoztutik atera ezinik geratu arren, lortu du bere lankideengana iristea.

Larraitz Ibarluzea inspektorea, beti bezala, serio-serio dago, mamu bat ikusi balu bezala. Mikelek askotan pentsatzen du noiz izango ote zen irribarrez ikusi zuen azken eguna. Baina berak ere segituan gorde du irribarrea hortzetatik, hilotza ikusi duenean, uretan tripaz behera, lezka artean trabaturik.

–Seguruenik urak ekarriko zuen. Gainera, haragia puztua duenez, esan deza-kegu denbora dezente egon dela uretan. Kokots azpian zulo bat du, seguruenik bala batek egina –esan dio Larraitzek.

–Horrela hil beharra ere... Baina, begira, gutxien uste duzunean... Zazt!

–Utzi zure txantxa ergelak alde batera, eta hasi lanean!

–Azkenean, nire beharra duzue.

Ibarluzea inspektoreak amorruzko begirada sarkor betekin erantzun dio. Orduan, Mikel konturatu da mihiari kosk egitea komeni zaiola, erantzun txar bat jaso nahi ez badu behintzat.

Poliziak, inspektoreak eta forentseak gorpua inguruan daude argazkiak atera eta atera. Bitartean, Ormaetxea inspektoreordea inguruak miatzen hasi da zerbait

aurkitu nahian. Halako batean, lezka eta sasi artean, diru-zorro bat aurkitu du. Barnean txanpon batzuk, bustitako 10€-ko billete bat eta nortasun agiri bat daude. Nortasun agiriak izen bat du: Luis Landaluze Goikoa.

Asteartea da. Egun bat pasatu da gorpua aurkitu zutenetik. Iratzargailua jotzen hasi da. Gaur ere silueta gorria bere atzetik izan du; baina, oraingo honetan, gertuagotik jarraitu dio. Ormaetxeak ez du ohetik jaikitzeke gogorik; baina, lanera joan behar duenez, segituan altxa behar izan du. Lanera iritsi eta, bulegoan sartu bezain laster, Larraitz inspektorea azaldu zaio.

–Hilotzari autopsia egiten ari dira. Horrekin jakingo dugu nola hil zen –dio Larraitzek. Bestalde, Luis Landaluzek bost egun zeraman desagertuta eta gaur bere emaztearekin hitz egitera joan behar dugu.

–Ongi da. Goazen, bada.

Inspektorea eta inspektoreordea Luis Landaluzeren etxera joan dira, haren etxe-koak elkarrizketatzera. Hurbildu direnean, konturatu dira etxea ez dagoela oso egoera onean. Hormetan, masa orbanak; teilatua, berriz, ustela, erdi eroria. Aldaba jo, eta haren emaztea atera zaie.

–Ormaetxea eta Ibarluzea inspektoreak gara. Badakigu ez dela momentu onena honetaz hitz egiteko, baina galdera batzuk egin behar dizkizugu zure gizonari buruz.

–Ongi da. Sartu barrura eta den–dena kontatuko dizuet.

Elkarrizketa luze joan da. Kontu asko, baina informazio gutxi. Inspektoreek ez dute ezer baliagarrikerik atera elkarrizketatik. Informazio interesgarrikerik emango ez dielakoan, eskerrak eman eta etxetik atera dira. Eraikinaren ondoan dagoen etxebizitzari begira geratu da Ormaetxea inspektorea. Haren atera hurbildu eta txirrina jo du. Gizaseme batek ireki die atea.

–Egun on. Ibarluzea eta Ormaetxea inspektoreak gara. Jakingo duzunez, zure bizilaguna hilda aurkitu dute. Nolakoa zen kontatuko bazenigu, ikerketan asko lagunduko zeniguke.

–Gizon ona zen. Hori bai, dirua besterik ez zuen, baina ez zuen xentimorik ere gastatzen. Oso xuhurra zen. Azkenean, horra zertarako erabili duen bere dirutza.

–Eskerrik asko zure informazioagatik. Kontuan hartuko dugu ikerketan.

Arratsaldea da dagoeneko, oskarbi dago, baina hotz handia egiten du. Eguzkiaren izpi ahulak hegoaldeetik mantso iristen dira komisariako leihora. Ormaetxea inspektoreordea bulegoan dago, autopsiaren zain. Halako batean, mezu bat iritsi zaio posta elektronikora: Luis Landaluzeren autopsia.

–Autopsiak adierazten duenez, tiro bat zuen kokotsaren azpian. Bala garuneraino iritsi eta hil zen. Uretan pare bat egun egon zen, ez dakigu hil eta gero uretara erori zen edo bota zuten ala beranduago bota zuten. Horrez gain, haren emazteak baieztatu du gorputza bere gizonarena dela –kontatu die Ormaetxea inspektoreordeak.

–Zer esan nahi duzu, bere buruaz beste egin zuela? –galdetu dio Ibarluzea inspektoreak.

–Ez dakigu. Autopsiak esaten duenaren arabera, ezin da hipotesirik baztertu.

–Baina, hori horrela bada, zergatik ari gara hiltzaile posibleak ikertzen, eta ez benetan hil zuten ala bere buruaz beste egin zuen ikertzen? Goazen gorpua bilatu zuten tokira! Tiroa non bota zuen ikusi behar dugu! –oihukatu du Ibarluzeak.

Asteazkenez, goizean goiz, inspektoreak eta ertzainak errio ingurua miatzen ari dira, itsasbehera aprobeztatuz. Goiz osoa pasa dute ingurua arakatzen inolako pis-tarik aurkitu gabe. Baina, orduan, ibaian gora dauden sastraken artean begira hasi da Ormaetxea. Aurrerago odol tanta batzuk ikusi ditu arroka batean. Gerturatu eta, erreka bazterrean, fusil bat aurkitu du.

Fusilari hatz markak atera, eta gauza batez ohartu dira: hildakoaren markekin bat datozela. Ondorio nabarmen batera iritsi dira: Luis Landaluzek bere buruaz beste egin zuen.

Kasua horrelaxe itxi da. Ibarluzea eta beste inspektoreordeak harro daude egin-dako lanaz; gainera pisu bat kenduko balute bezala sentitzen dira. Baina Ormaetxea inspektoreordea ez da gustura geratu. Bere barneak esaten dio pieza guztiak ahokatu gabe geratu direla. Iruditzen zaio puzzleko piezak osatu gabe daudela. Horregatik, ikerketarekin bere kabuz jarraitzea pentsatu du.

Gaur, ostegunez, amesgaiztoak esnatu du Mikel. Amesgaiztoak gero eta oker-ragoak izaten ari dira. Oraingo honetan silueta gorri erraldoiak besotik heldu eta garrasi egin dio. Ahotik bota dizkion odol tantez ziprztindurik utzi du. Inoiz ez du amets batean horren gaizki pasatu.

Ikerketa aurrera eramán ahal izateko, krimenaren eszenara joan da Mikel. Odol arrastoak erdi ezabatuta daude dagoeneko. Autotik aihotza hartu eta sasiak moztén hasi da. Halako batean, urrezko lepoko kate bat aurkitu du sasien azpian. Kateak medaila bat du inisial batzuekin: AA.

Komisariara bueltatu eta kasuko dokumentu eta orrietan begira hasi da, inisial horiek berak dituen eta kasuari loturik egon daitekeen pertsona baten bila. Inisial

berak dituen pertsona bakarra agertu da: Andresa Azkorra, hildakoaren emaztea.

Kasua berriro ireki da. Andresaren etxerantz abiatu da Ormaetxea; baina, oraingo honetan, Ibarluzea inspektorearekin. Oso harriturik utzi ditu biak hiltzailea, seguruenik, haren emaztea dela jakiteak. Hala ere, emakumea erruduntzat jotzeko, froga gehiago behar dituzte: emakumeak aitortzea (onena, baina nekez gertatzen dena), ADN arrastoren bat, grabaketa bat...

Etxera iritsitakoan, aldaba jo eta zain geratu dira. Inork erantzuten ez zuela-eta joatekotan zirela, atea ireki egin da. Biak etxera sartu bezain laster, beren bizkarrean itxi da atea. Bat-batean, atearen atzetik emakumea atera eta Ormaetxeari burutik behera eman dio burruntzali batekin, konortetik gabe utzirik. Erreakzionatzeko denbora eman baino lehenago, gizona batek Ibarluzeari kloroformoz bustitako zapi bat jarri dio muturrean eta lotan utzi du.

Ormaetxea esnatu egin da. Ohartu da hankak eta eskuak soka lodiekin loturik dituela eta ahoa zapi batez estalia duela. Ikusmena osorik itzultitakoan, ikusi du sukaldean dagoela, Larraitzi loturik, zutabe bat tartean dutela. Larraitz lo seko dago eta ez du ematen denbora batean esnatuko denik. Bizkarra emanda, Andresa Azkorra dago, aulki batean eserita, sutondoan, labana handi bat zorrotzen. Mikeli konortea guztiz itzuli zaionean, Larraitzek salto bat eman eta esnatu egin da. Egoeraz ohartzean, oihuka hasi da.

–Hara, hara! Halako batean esnatu zarete!

–Konturatu zara gu hemendik ateratakoan denek jakingo dutela bahitu egin gaituzula eta zure senarra hil zenuela? –oihukatu dio Larraitzek.

–Zeinek esan du aterako zaretenik? –erantzun dio barre algaraka ari den bitartean–. Eta beste horrek bere buruaz beste egin zuela pentsatzea ere. Pena ematen duzue, tranparik sinpleenean erori zarete. Baina, pertsona ona naizenez, duela astebete gertatu zena kontatuko dizuet. Ez zarete kexatuko... Luis xuhurra izan zen betidanik, eta ez dirurik ez zuelako... Ni nazkatuta nengoen, nire anaia-rekin hitz egin eta gauza bat pentsatu genuen.

–Luis gaixoa akabatzea, ezta? –galdetu dio Mikelek.

–Halako zerbait. Ahate ehizan ari zela, suizidio bat irudikatu genuen. Eta zuek, inozo horiek, tranpan erori zarete. Orain biok akabatu eta soto azpian lurperatuko zaituztet, eta inor ez da hor zaudetela konturatuko –esan die labana laztandu bitartean.

Atsoa hitz egiten ari den bitartean, inspektoreek sokak moztu eta eskuak eta hankak askatu dituzte. Emakumeak buelta emandakoan, gainera salto egin eta immobilizatu egin dute.

Poliziek eskuburdinak jarri eta polizia autora sartu dute Andresa Azkorra.

Gutxienez, hogeita hamar bat urte eroriko zaizkio. Haren anaia atxilotzeko deia ere egin dute.

Horrelaxe itxi da kasua, bigarren eta azken aldiz. Oraingo honetan Ormaetxea inspektoreak ere gustura itxi du kasua. Harro dago egindako lanaz. Gainera, aukera ezin hobea agertu zaio, horrenbestetan saiatzen den bezala, Ibarluzeari azaltzeko bera baino argiagoa dela.

Gauean silueta gorri erraldoia agertu zaio berriz ametsetan. Baina ez da amesgaizto bat izan. Siluetak agurtu egin du eta urrundu egin da, zeruertzeko lanbrotan desagertu arte.

Joxe Mari Unanue

Gaueko argiak

2016ko urriaren 15a, larunbata

Gaueko bederatzia dira, gutxi gorabehera. Lagunekin geratua nintzen, arratsaldea pasatzeko, eta etxera bueltatzeko ordua da. Kasualitatez, aurikularrak ditut poltsiko batean eta, bakarrik nagoenez, musika entzutea pentsatu dut. Hamar minutuko bidea dago herritik nire etxera; baina, musika entzunez, bi minututan iristen zarela ematen du. Aurikularrak jantzi ditut, musika jarri eta etxera bidean abiatu naiz.

Esan beharra daukat ingurura begiratzea oso gustuko dudala: nonbaitetik pasatzen naizenean, inguruari erreparatu behar diot, kontrolpean eduki beharko banu bezala. Eta gaur horretan ez naiz gutxiago izango. Musika entzunez, ingurura begiratzen hasi naiz, herriko txoko politei erreparatzen, eta nire gauzetan pentsatzen. Baina, beste egunetan ez bezala, gauza batek asko harritu nau. Ez dakit zergatik, munduko gauzarik normalena izan daiteke, baina arreta deitu dit. Gure herria hesi batek zeharkatzen du; herria hesiaren alde batera dago, eta beste aldean mendiak daude. Kontua da hesiaren beste aldean argi bat ikusi dudala. Ez farolen argia; izan ere, ez baitago farolik beste aldean, baizik-eta auto edo moto baten argia. Itzali eta piztu egiten zen. Arreta deitu dit horrek. Zer egiten du, bada, larunbat gau batean auto batek, gaueko bederatzietan, hesiaren beste aldean, ilun-ilun dagoen alde hartan? Baina ez naiz asko arduratu, egia esan, gaua pasatzera joan den bikote bat edo kanpatzera joan diren haur batzuk izango dira. Etxera iristean, amari esan diot, buruan dudalako bueltak emanez. Amak txorakeria bat zela esan dit eta, beraz, kasu egin diot. Gaia alde batera uztea pentsatu dut.

Gauean ezin dut lorik egin. Buruari bueltak ematen dizkiot hesiaren bestaldeko autoaren argiengatik. Oso arraroak egin zaizkit argi haiek momentu hartan... Horretan pentsatzen hartu dut lo.

2016ko urriaren 16a, igandea

Egunik arraroena izan da gaurkoa, dudarik gabe. Esnatu, gosaldu eta mugikorri begiratu diot, egunero bezala. Ohikoa da mezu batzuk edukitzea, baina gaur goizean ditudan mezuak ez dira betikoak bezalakoak. Mirenek idatzi dit, lagun batek, herriko emakume bat desagertu egin dela esanez, eta polizia kasua ikertzen ari dela. Orduan izan dut benetako buruhaustea. Izango al du zerikusirik atzo gauean ikusitako autoaren argiek desagertutako emakume harekin? Bai zera, Araia! Nola pasa ote zait hori burutik? Momentu honetan irudimen gehiegi dudala pentsatu dut. Pelikula baten modukoa ematen du honek. Beraz, nire bizitzarekin normal-normal jarraitu dut.

2016ko urriaren 21a, ostirala

Astebete pasatu da jada gau bitxi hartatik. Ez dut desagertu zen emakume hartaz gehiago ezer jakin, poliziak ikertzen ari direla bakarrik, baina ez da informazio gehiagorik argitaratu.

Ez dakit zer gertatzen zaidan, baina gau hartako argiak ez ditut ahazten. Burua joaten ari ote zait? Pelikula gehiegi ikusten al ditut? Ez dakit, baina dakidan bakarra da argi haiek ez zidatela konfiantzarik ematen. Bihar ere leku beretik pasatu beharko dut, baina ez dut pentsatzen bakarrik pasatzea. Mirenekin hitz egingo dut, guztia kontatuko diot, nahiz eta badakidan barre egingo didala. Bihar, behintzat, ez naiz bakarrik pasatuko handik.

2016ko urriaren 22a, larunbata

Iritsi da larunbata. Esan diot jada Mireni gaur etxera laguntzeko, nire etxean lo egiteko, eta hesi aurretik pasatu behar dugula ere esan diot. Halere, Mireni ez zaio txorakeria bat iruditu, nik uste nuen bezala. Bera ere asko harritu da nire teoria kontatu diodanean. Horrek, behintzat, nire buruarengan konfiantza apur bat eman dit, orain badakidalako ez naizela hilketa bat gertatu dela pentsatzen duen bakarra.

Gaueko bederatzi eta erdiak dira. Lagunak agurtu ditugu eta etxerako bideari ekin diogu. Gaur, bakarrik ez nagoenez, eta isiltasunean joatea gorroto dudanez, mugikorrean musika jarrita joan gara Miren eta biok.

Iritsi gara hesira. Ez da ezer ikusten, oraingoz. Pixka batean geratzea pentsatu dugu. Halako batean, motor hotsa entzun dugu. Musika kendu eta ezkutatu egin

gara. Auto bat dator hesiaren beste aldetik, baina horrek ez du ezer esan nahi. Errepide horretatik askotan pasatzen dira autoak, eta hori ez da froga sendorik. Momentuz.

Autoa gerturatzeko doan bezala, gehiago fijasatu naiz. Eta gauza batek harritu nau: autoak argi bat puskatua zuen. Beraz, orain dela astebeteko autoa izan behar zuen, argi bakarria ikusten zen auto hura. Gugandik urrundu denean, Mireni kontatu diot argiarena. Zerbait arraroa pasatzen ari da.

2016ko urriaren 23a, igandea

Miren eta biok ez dugu ia lorik egin gau osoan. Atzo gaueko kontuari bueltak emanek egon gara denbora guztian. Baina gurasoek ez digute sinetsiko, eta poliziak ere eta gutxiago. Hesiaren beste aldera joan behar dugu, gutxienez ziurtatzeko gure teoria egia den edo, kasualitatez, auto normal bat zen. Bi aldiz pentsatu gabe, Miren eta ni jantzi eta hesiaren beste aldera joan gara.

Hemen gaude, atzo gauean autoa ikusi genuen toki berean. Ingurua miatzen hasi gara, ea zerbait interesgarria topatzen dugun. Etsita gaude, ez dugu-eta ezer aurkitzen. Agian, guztia gure irudimenaren ondorio izan da. Ilusio guztia joan zait. Nola sinetsi ote nuen hori guztia? Nola imajinatu ote nuen istorio hori?

Etzera bueltan abiatu garenean, Miren makurtu egin da bat-batean. Lepoko bat dago lurrean. Hartu egin dugu, buelta eman eta atzean dituen hitzak irakurri ditugu: *Amelia* jartzen du. Orduan, burua bueltak ematen hasi zait. Irudi bat etorri zait burura, baina ez naiz gogoratzen zer jartzen duen. Momentu batean begiak itxi ditut eta, orduan bai, gogoratu naiz. Mirenek bidali zidan egunkariko artikulua zen. *Amelia* izeneko emakumea zen desagertu zena. Ezin zitekeen kasualitatea izan. *Amelia* desagertuta, lepokoa *Amelia* izenarekin, autoa gauero hesiaren beste aldean... Itxura txarra hartzen diot.

2016ko azaroaren 8a, igandea

Bi aste pasatu dira eta Miren eta biok berriz hesiaren beste aldera joatea pentsatu dugu, ea zerbait gehiago aurkitzen dugun.

Bizikletak hartu ditugu, eta hesirantz abiatu gara. Ez da ezer entzuten. Ez dugu ezer susmagaririk ikusten. Baina, bat-batean, konortea galdu dut. Ez dakit zer gertatu zaidan, baina etxe batean esnatu naiz, Mirenen ondoan. Hori bai, eskuak eta hankak lotuta ditugu.

Zer gertatu da? Beharbada hiltzaileak harrapatu egin gaitu eta, kasua argira ez ateratzeko, bahitu egin gaitu? Ez dakit, buruko min handia dut. Mireni begiratzen diot behin eta berriz, baina ez da esnatzen. Berriz begiak ixtea pentsatu dut, baina

gelako atea ireki egin da. Gizon bat sartu da gelara, beltzez jantzita, baina ez diot aurpegia ikusten, gaizki ikusten dut. Gizonak, lo geundela ikustean, alde egin du, gu esnatu beharko bagintu bezala. Halako batean Miren esnatu da, eta lasaitzen saiatu naiz. Gizonak, ordea, entzun egin gaitu, eta gelara sartu da. Gau luzea izango da gaurkoa.

Gizonak laban bat dauka eskuan eta horrek asko beldurtu gaitu Miren eta biok. Zer egitea pentsatzen du? Baina ez da guk uste duguna, ez digu minik egin nahi labanarekin; edo oraingoz ez, behintzat. Eskuetako eta ahoko sokak moztu dizkigu labanarekin. Hori bai, ahoko zapia kendu aurretik, zaratarik ez ateratzeko eskatu digu.

Gizona gelatik ibiltzen hasi da, gure zain balego bezala. Halako batean, galdera bat egin digu.

–Zer egiten zenuten zuek biok hemen, hesiaren beste aldean?

Arraroa iruditu zait. Ez zeukan haserre itxurarik; are eta gehiago, oso lasai zegoen.

–Askotan etortzen gara, txikitatik ezagutzen dugu leku hau eta oroitzapen onak ekartzen dizkigu –erantzun dio Mirenek.

Gizona barrez hasi da. Zerk dauka horrenbesteko grazia?

–Eta beste galdera bat: nondik atera duzu esku artean duzun lepoko hori?

Galdera hori niretzat da. Atzo aurkitu genuen lepokoa zen, Amelia izena zuena atzealdean. Ezin diot egia esan. Amelia desagerrarazi duen gizona bada, Miren eta ni hilko gaitu.

–Lurrean bilatu genuen aspaldi eta, polita zenez, hartu egin genuen.

Ez dakit zer gehiago esan. Oso urduri nago. Ahotsak dardara egiten dit.

Orain bai. Gizona benetan haserretu da. Badaki zerbait badakigula Amelia andreri buruz, eta bera izango da, seguruenik, Amelia azken aldiz ikusi zuen pertsona.

–Niri ez jo adarrik! Badakit Ameliari buruz dena dakizuela! Hemendik ez zarete ongi aterako.

Momentu horretan bihotza geratu egin zait. Zer esan nahi du horrek? Hil egingo gaituela? Torturatu egingo gaituela? Ez dakigu ezer-eta! Beharbada, orduan, bera izango da Amelia hil duen gizona, eta Miren eta ni gara hurrengoak.

Gizonak alde egin du gelatik, eta Mireni begiratu diot. Gaixoa negarrez dago. Ezin dugu amore eman. Ezin digute bizitza horrela kendu. Plan bat prestatu behar dugu; azkar, gainera.

Gizonaren pausoak entzuten dira. Atea ireki du. Pistola bat dauka eskuan. Gure azken minutuak dira. Gizonak eskerrak eman dizkigu inori ezer ere ez kontatzeagatik, eta tiro egitera doa...

Ohean esnatu naiz. Izerditan nago, eta bihotza atera egingo zaidala ematen du. Beraz, amets bat izan da guztia? Ezin da izan! A, zer sustoa! Erlojuari begiratu diot, eta goizeko bostak dira. Eskerrak dena amets gaizto bat izan den. Lo egin behar dut, oraindik oso goiz baita.

2016ko azaroaren 24a, astelehena

Goizeko zazpiak dira, eta hemendik ordu erdira jaiki egin behar dut ikastolara joateko. Buruari bueltak ematen egon naiz. Nolako ametsa izan dut gaur gauean! A, zer beldurra pasatu dudan! Hil egingo nintzela pentsatu dut momentu batean.

Esnatzeko ordua da, eta salara joan naiz. Telebista piztu dut, eta betiko katean dago jarrita: albistegietan. Nahiz eta erdi lo egon, albiste batek zur eta lur utzi nau: herriko emakume bat desagertu da, Amelia izenekoa.

Irati Vivas



Nahikari Larrañaga

Mutil bat eta neska bat


Mutil bat eta neska bat,
istorio honen protagonista.
Batek izua du, besteak handikeria.
Batek malkoei eusten die,
beldurrik ez duela adierazi nahian.
Besteak ahoa estaltzen dio esku handiekin,
eta ezpainak bustitzen ditu,
buruan dituen ideia guztiak agerian utziz.
Biek pentsamendu guztiak kendu nahi dituzte burutik,
batek amaiera emateko guztiari,
baina besteak denak oroitzapen bihurtzeko.

Eskuen jolasa hasten da.
Bat gerturatu,
bestea urruntzen saiatu nahian.
Batek irribarre,
besteak negar.
Ipuin honek amaigabea dirudi,
baina bati indarra amaitu zaio,
besteari gogoak.

Batek atsekabetuta kontatuko du gertakaria,
besteak harrotasunez.
Batek urteak igaroko ditu ahaztu nahian,
besteak beste batekin errepikatuz ahaztuko du.

Mutil bat eta neska bat,
istorio honen protagonista.
Baina ez da amodiozko istorio bat.

Itziar Mendizabal



Eider Peiro

Beharra?

Besarkada bat behar dut,
nirekin zaudela erakusteko.
Besarkada bat,
lagunduko nauzula esateko.
Besarkada bat,
besterik ez.
Besarkada bat, maitatua sentitzeko.

Maite zaitut bat behar dut,
guzti honetatik irteteko.
Maite zaitut bat,
indarrak berreskuratzeko.
Maite zaitut bat,
besterik ez.
Maite zaitut bat,
aurrera jarraitzeko.

Hori behar nuelakoan nengoen,
indarririk gabe nengoelako.
Hori behar nuelakoan,
konfiantzarik ez nuelako.
Hori behar nuelakoan,
besterik ez.
Hori behar nuelakoan,
begiak irekitzeko gai ez nintzelako.

Eider Peiro

Ez utzi berriro joaten, ama!

Zerua ikusi eta jabetu nintzen egun hori zela, maite nuen hura kendu zidatena berreskuratzeko eguna, maite nuen horri esateko ez larritzeko. Eguzkiaren izpiek aurpegian jotzen ninduten, bero horrek nire barruan sentimendu bat pizten zidan. Momentu hartan sentitu nuen mundua jango nuela, inork ez ninduela geldituko. Nire bizitzan zehar pasatutako momentu krudel horiek bukatuko zirela, jendearen begiradak gainetik kenduko nituela... Beraz, nire desira eta kemen guztiarekin egin nuen pankarta hura altxatu nuen irrika han-diarekin. Nire barruan zebilen kezka guztia askatzeko unea, munduari oihukatzeko nire errealitatea. Baina nire barruan zebilen kezka hori ez zen desagertzen.

Nikolay Smirnov mundu okerrean jaio zen gizajoa da. 16 urte ditu eta sekretu bat gordetzen du. Bere bizitza gezur hutsa da eta nekatuta dago itsaso sakon eta ilun horretan bizitzeaz. San Petersburgon bizi da, beretzat benetako infernua. Bertan ez diete uzten diren bezala agertzen. Bera bezalako pertsonak eraso ugari jasan behar izaten dituzte. Nikolay aspertuta dago eta munduari oihukatu nahi dio sentitzen duena, inongo kezkarik gabe, burua nahasi gabe. Aspertuta dago. Nikolayek txiki-txikitatik sentitzen zuen gorputz ezberdin batean jaio zela. Ez zuen ulertzen munduan 7 mila milioi pertsona egonda, zergatik tokatu behar izan zitzaion berari hori bizitzea. Ez du ulertzen. Gurasoekin bizi da, baina ez die kontatu bere sekretua, oso arriskutsua baita.

Karina Ivanovak 35 urte ditu. Bera ere San Petersburgon bizi da. Zoritxarrez, esklerosi anizkoitza dauka, eta Errusia ez da herrialde onena gaixotasun horri aurre egiteko. Gaixotasunak mugitzeko arazoak eragiten dizkio eta ezin du bakarrik ibili kalean, laguntza behar du. Gizonek laguntzen diotenean, ez da arazorik egoten: eskutik heltzen diote eta bere etxeraino laguntzen diote. Emakumeren batekin doanean, aldiz, poliziek ikusten badute eskutik helduta doazela, oihuka hasten dira eta, gehienetan, bai berak eta bai laguntzaileak eraso fisikoak jasan behar izaten dituzte. Karina leher eginda dago. Egunero hezurretako minarekin esnatzen da. Bere hezurak paperezkoak iruditzen zaizkio, ezin du apenas ibili eta gorputza normala baino lau aldiz astunago sentitzen du. Egunero bizkar gainean motxila erraldoi bat edukiko balu bezala ibiltzen da; ondorioz, azkar nekatzeko joera du. Karina emakume indartsua da, hala ere, eta ez du amore emango

Nikolayek bere egongelan armairutxo bat du. Bertan, giltzapetutako kutxaren barruan, bere mundua dago, ezkututzen duen mundua, sentitzen den bezala adierazteko trikimailuak: kolore eta era askotako soinekoak, makillajeak, zetazko bularretakoak... Baina garrantzitsuena kutxaren hondotan du: album berezi bat. Album horretan dauzka medikuen telefonoak, saretik jasotako artikulua, eta Espainiako gorabeheren berri. Nikolayen ametsa Espainian bizitzea baita: han

eskubideak dituztelako, eta erasoetatik libre, aske izateko aukera... Berarentzat, paradisua.

Zoritxarrez, bera infernua bizi da eta bertakoa izatea tokatu zaio. Egunero bezala, jaiki eta ispiluan begiratu dio bere buruari. Gorroto du ikusten duena. Tentazio ugari izaten ditu ispilua mila zatitan puskatzeko, bere arima izango balitz bezala. Kristal pusketa horiek bere barruko bihotz eta errai guztietan sartzen zaizkio, poliki, mina areagotzeko; poliki, Nikolay txiki-txiki egiteko.

Karinak ezin du mugitu. Sentitzen duen pisuak bere nahien aurka jokatzen du. Oheak poliki-poliki tragatzen du. Gaur ere hezurak kartoizkoak ditu, arinak, indargabeak, ahulak... Ezin ditu altxa. Aurpegira freskotasun bat etorri zaio. Gau txarra pasa du. Ezin izan du lo egin, atzo lagundu zion emakumea etortzen zitzaio-lako burura. Atzoko arratsaldea oso txarra izan zen. Emakumea eta bera, eskutik heldurik, Karinaren etxerantz abiatu ziren. Zoritxarrez, etxearen aldameneko edari dendan bi polizia zeuden eta, haiek ikusi bezain laster, Karinaren hezurrek okerre-na itxaron zuten. Paperezko bere hezurak uretan bustiko balira bezala sentitu zuen. Bere bihotzak kristalezkoa zirudien eta gorputza txikitu zitzaion. Odolaren berotasun hark Karina lokartu zuen. Esnatzean, etxean zegoela konturatu zen. Izerdi putzu batez inguraturik, amets gaiztoen fruitu. Behin eta berriro biziz. Egunero bezala, Karina jantzi eta kafearen berotasunaz hasi zuen eguna. Ordua ikusi eta konturatu zen goizeko seiak zirela. Karinak ez zuen berriz ohera joan nahi. Beraz, *Doktor Zhivago* liburua hartu eta irakurtzen hasi zen. Liburuak gizon baten istorioa kontatzen du; aldaketa ugari jasaten ditu, baina berak ez ditu kontrolatzen. Karina bezala. Goizeko bederatziak iristen direnean, Karina akademiarentz abiatzen da, klaseak bederatzi eta erdietan hasten direlako.

Nikolay, eskolatik etxera etortzen denean, bakarrik egoten da. Hortaz, bi ordu izaten ditu bere kutxako gauza kuttunak erabiltzeko. Desberdin dago, arraro, baino arrarotasun hori gustuko du. Kutxaren giltza erabiltzen ez duen poltsa baten barruan gordetzen du, poltsiko txikienean. Bere benetako izana zein ote den galdetzen dio bere buruari, bere benetako izaera, bere benetako dena... Sofan eseri eta telebista ikusten hasi da. Ondoren, hozkailutik izozki bat hartu eta momentu batez pentsatzen du katuak soilik falta zaizkiola 56 urteko andere baten moduan egoteko. Bere ezagunek nola erantzungo duten imajinatzen du, bere lagunak onartuko duten ala ez, mundu honetan besoak zabalik hartuko dion norbaiten zain. Basamortu huts batean dago Nikolay. Ezin du ez aurrera ez atzera egin. Hondarrak lur barruraino eramango du, leporaino dauka. Ez badu ezer pentsatzen, hondoratu egingo da eta eraikitako mundu horrek jango du. Errealitatetik ihes egin du, erlojua ikusi eta konturatu da bost minututan aita etorriko dela. Erantzi, eta kutxan gorde ditu hain maiteak dituen gauza ñimiñoak. Komunera joan eta desmaki-llatzen hasi da. Eskuzapia aurpegitik pasatzen duen bakoitzeko, pixkanaka-pixkanaka, beste ni hori ikusten du, hain gorroto duen beste ni hori. Masailetan rimelaren ibilbide ilun eta beltza du. Negarrez ari da, ez daki nola geratu bere erraien barruan jaiotzen den aiher hori. Bukatzea besterik ez du nahi .

Nikolay eta Karina bi errealtate ezberdinetan bizi dira, baina ez oso urrun. Bata bere buruaren etsai okerrena da eta min egiten dio bere buruari; baina aldatu daiteke, lau haizeetara oihukatu, ezeren beldur ez izan. Besteak, aldiz, beste pertsona batzuen gain oinarritzen den bizitza du, eta aldaezina da.

Pankarta altxa eta hor zegoen bera, niri begira, bere begirada zorrotzarekin, bere begirada sakon horrekin. Nire arimarekin egin zuen topo. Jelatuta zegoen arima horrekin. Denbora gelditu zen. Elur-maluta bat besterik ez nuen ikusi.

Ematen zuen zerbait ezkututzen zuela. Biok geldi geunden; bera, errepidearen beste aldean. Bost metro soilik ibili behar nituen jakingura eta kuriositate hori burutik kentzeko. Zein ote zen? Imajinatzen ari al nintzen hori guztia? Azken begirada bat eskaini zidan. Bi aldiz pentsatu gabe errepidea pasatu nuen, baina kamioi batek ez zidan uzten ikusten eta, beraz, itxaron egin nuen. Kamioia pasatu orduko, desagertu egin zen, desagertu egin zen erantzuna emango zidan bakarra.

Marruak entzuten ziren Nikolayen etxetik, gorroto marruak, etsipen marruak, marru lazgarriak, hamar kilometroko erradioko bizilagunak entzuteko modukoak. Amak Nikolayen mundua ezagutu zuen. Bere ilobak poltsa txiki baten bila jo zuen Nikolayen amarengana. Beraz, Nikolayen gelara sartu eta miatzen hasi zen. Poltsa bilatu eta giltza bat zuela jabetzean, kutxa arakutzen hasi zen. Amak edozer gauza espero zuen hura izan ezik. Ez zuen imajinatzen bere semea zenik, ezta berak hezi zuenik ere. Etxetik bidaltzea zen irtenbidea, etxetik bidali eta ahaztu semea eduki zuela. Gauza zikin bat iruditzen zitzaion. Arima guztiarekin gorroto zuen.

Nikolay etxera bueltatu eta berehala konturatu zen zerbait gaizki zihoala. Bere gauza denak terrazan zeuden: bere gauza kuttunenak, arropa... dena. Momentu hartan beldurrak jan zuen barrutik. Lehengo ispilu zatiek bere gorputza guztiz zeharkatu zuten. Aita eta ama ikusi zituen eta berarengana jo zuten, sutan. Nikolayek bazekien zer zetorkion gainera:

–Nire semea zinen. Nire barruan jaio zinen eta orain kanpoan hil zara nire aurrean eta ez naiz apenas konturatu... Ez nuen uste halakorik egiteko ausardia edukiko zenuenik! Gauza guztiak hartu eta pikutara joan zaitez! Ez dut ezer jakin nahi zutaz! Alde!

–Ama, ez egin horrelakorik, ez utzi joaten... Ama, ez... Barkatu!

–Aitak eta biok konfiantza guztia eskaini genizun eta zuk zapuztu egin duzu. Ez zaitut ikusi nahi! Alde hemendik, Nikolay! Alde!

Aitak zaplazteko batekin agurtu zuen Nikolay. Hura izango zen memorian gordeko zuen momentua, aitaren berri izango zuen azkenengo aldia. Ahazteko, gurasoek gauza guztiak erre zituzten, eta Nikolayek orduantxe ikusi zuen benetako infernua bere gurasoen begietan islaturik.

Ilunabarrean Karina etxera bueltatu zen. Akademiatik bueltan gorputz bat ikusi zuen lurrean, kartoi zatien gainean, mantekin estalirik. Gerturatu eta mutil kozkor bat zela konturatu zen. Berehala lagun bati deitu eta mutil hori Karinaren etxera eramane zuten. Gaua aurrera zihoan heinean, mutila oihuka hasten zen, amesgaiztoek eraginda. Biak jaiki zirenean, polizien itaunketa bat balitz bezala igaro zuten goiza. Nikolay izena zuela azaldu zion mutilak, baita familiaren gorabeherak ere.

Nikolay eta Karinak tratu bat egin zuten: Nikolay Karinaren etxean geratuko zen, bere gaixotasunaren aurrean laguntza emateko. Karinak, berriz, akademia-rako pasabide bat emango zion Nikolayari, gaztelaniako ikasketak egiteko eta, hartara, Espainiara joateko aukerak areagotzeko. Beraz, makuluak hartu eta akademia-rantz abiatu ziren. Nikolay bere etxean baino hobeto sentitu zen, beste giro bat arnasten zuen eta horrek barrua guztiz bete zion. Karinaren ikasleek Nikolayen mundu bera partekatzen zuten eta, beraz, ez zuen bere iraganaz kezkatu behar. Bien bizitza guztiz aldatu zen, esperantzak guztiz galdu baino lehenago ezagutu zuten-eta elkar. Momentu hartatik aurrera irribarre ezberdina zeukaten. Hilabeteak pasatu orduko, Nikolayen jakin-mina handitzen joan zen; gero eta gogo handiagoa pizten zitzaion Espainiara joateko; gogo handiago, libre izateko. Karina, berriz, hobeto sentitzen zen, mina murriztu zitzaion eta bere paperezko hezurak zurezkoak bilakatu ziren. Biek egin zuten mundu hori bikaina zirudien. Karinak *Doktor Zhivago* utzi zion Nikolayari, eta berak ere ideia harrapatu zuen. Nikolayek begietan zeraman gurasoen irudia, bere gauza kuttunak janzteko irrika. Nahiz eta ikaskideei bere iragana ez kontatu, berak ezin zuen ezabatu. Gauero jaten zion, ezin zuen lorik egin. Baina Karinak ez zuen horren berri.

Goizero bezala, Nikolay zortzi eta erdietan esnatzen da. Karinari gosaria prestatu eta janztera abiatzen da. Biak oso txantxazaleak direnez, goiza irribarre batekin hasten dute, baina Nikolayek ez ditu burutik kendu bere gurasoen aurpegiak, bere burua zorabiatzen dute, gauero egoten da mezu baten zain. Karinaren autoan sartu eta San Petersburgoko auzoak zeharkatzen dituzte, akademia-rantz. Karinak hainbat gizon atzetik zituela susmatzen zuen; baina ez zen larritzen, Nikolay han zuelako. Karinak ez zuen jaramonik egiten. Pentsatzen zuen lehengo emakumearen senitartekoak zirela eta erantzun bat nahi zutela. Akademia ezkutatua zegoen, polizien erasoak saihesteko.

Nikolay eta Karina gelara iristen direnan, klasearekin hasten dira. Bat-batean Nikolayen mugikorrek soinutxo bat egiten du, mezu bat iritsi zaionaren seinale; baina itzali egiten du, klasea hastear dagoelako. Zoritxarrez, akademiaren gainean bizi den gizon helduak poliziari salaketa jarri dio, akademian LGTB pertsonen aldeko manifestazioak egiten dituztela esanez.

Egun horretan, klaseak hasi eta berehala, atea bota egin zuten. *Militsiyek* bortizkeria eta haserre handiarekin birrindu zuten akademiaren gela. Kanpotik tiroak ere entzun ziren. Kolore gorri bizi batek gela margotu zuen. Amets, desira, irudimen guztiak kolore gorri horretan plasmatu ziren. Nikolayen ametsak. Gizon horiek Nikolayri azkenengo hasperena eskaini zioten, azkenengo minutuak. Balak errai guztiak zeharkatu zizkion, behin eta berriz imajinatzen zuen moduan. Mugikorra atera eta ikusi zuen bere amaren mezu bat zuela. Pentsatu zuen ez ziola denbora emango mezua irakurtzeko eta, beraz, Nikolayek hurrengo idatzi zion: “Ez utzi berriro joaten, ama!”. Karinaren besoetan eduki zuen azken hasperen hori. Argia ikusi zuen aldi bakarra izan zen hura. Amildegi hori zeharkatu eta hantxe zegoen argi zuri eta polit hori. Denbora gizakien esku balego, ez lituzke beste hainbat egun itxaron beharko erantzuna ezagutzeko. Baina denbora beste era bateko jokoa da eta beste era bateko arauak ditu.

Nikolay: Barkatu iezadazu! Ez nuen bi aldiz pentsatu eta benetan damututa nago. Ezin izan dut lorik egin. Agur esatea ezinezkoa dirudi. Ezin izango nizuke berriro begietara begiratu, lotsak barrutik hitzak jaten dizkidalako. Nire besoetan edukizetik handia egin zara eta, tira, kontu honek guztiak ezustean harrapatu nau. Ez dakit zein momentutan hasi zinen nire eskuetatik ihes egiten, ezta ere agur krudel hau nondik sortu den. Sentitzen dudan bakarra zure aldentzea da, sentimenduen nahastea... Galduta nago, Nikolay. Badakit ez dugula izan ama-eme erlaziorik onena; baina espero dut zure bihotzean oraindik leku ttiki bat egotea niretzat. Nikolay, zure alde egingo ditut manifestazioak; zurekin, zure alboan... Jauregiaren plazan egingo dut. Ez bazara azaltzen, ezezkotzat hartuko dut. Etortzen bazara, berriz, etorkizun bat eraikiko dugu. Goazen Espainiara eta sor dezagun beste bizitza bat. Nikolay. Я люблю тебя (Maite zaitut).

Karinaren malkoak bakarrik entzuten ziren gelan. Ez zuen sinesten gertatu zena. Hainbeste denboran berarekin egon zen mutikoa ez zen mugitzen, baina gelan bere presentzia nabarmena zen oraindik. Nikolayek, poliziaren eraso gertatu baino lehenago, bere mugikorrean ikusi zuen amaren mezua. Nikolayek jarritako esaldia ere hantxe gelditu zen. Bakarrik. Isiltasunean.

Hurrengo egunean, Karina Jauregiaren plazarantz abiatu zen. Han andre bat ikusi zuen, pankarta batekin; Nikolayen ama zen. Berriz begiratu eta konturatu zen aurreko egun hartan lagundu zion emakumea zela. Nikolayen ama zen lagundu ziona! Beldurra sentitzen zuen; baina dena jakiteko eskubidea zuela uste zuen eta, beraz, emakumearengana hurbildu eta dena kontatu zion.

Egun eguzkitsua zen hura, eguzkiaren izpiek aurpegia berotzen zieten. Cadizko itsasertzean zeuden Karina eta Nikolayen senitartekoak. Denek gogoan zuten Nikolay. Azken hitzak eskaini eta agur gozo batez haizatu zituzten Nikolayen errautsak Mediterraneo gainera. Nikolayek horren maitea zuen leku horretara, Paradisura.

Ainhoa Martikorena

Azken aukera

Bizirik nago. Nire gorputza dut begien aurrean, geldirik, ospitaleko gela triste honetan. Ohe zuri batean dago, kamisoi zuri bat jantzita. Hainbat makina eta tutu ditu lotuta eta, tarteka, *piii* mantso eta baxua entzuten da. Nola liteke? Zer gertatu zen motorreko istripuaren ondoren? Gutxi irauten dute nire galderek, medikua sartzen baita logelan. Belen jartzen du ezkerraldean duen txarteltxoan.

–Zer moduz, Kaira? –galdetzen du nire gorputzari begira–. Jada astebete igaro da izan zenuen istriputik. Ezingo didazu erantzun, baina badakit entzuten nauzula. Familia jakinaren gainean dago, baina jakin ezazu egoera larrian zaudela. Gogoia jarri beharko duzu, eta borrokatu, bizirik jarraitzeko. Zure erabakia da hemendik irtetea.

Zer dio? Jakina biziko naizela! Hori aukeran jartzea ere... Bere parean nago, baina ez nau begiratzen. Ni bezalako bi gaude gela berean. Gehiegi da nire buruarentzat. Zorabiatu egingo naizela iruditzen zait. Aire fresko bila, gelako ate irekitik pasatzen naiz ospitaleko sarrera aurkitzeko. Ate mekanikoak dira, gerturatzean irekitzen diren horietakoak; baina, ni gerturatutakoan, ez dira irekitzen. Eskuetan zerrenda luze bat duen gizona sartzen da, eta atea irekitzen dira. Berriz ere saiitzen naiz, baina ez da ezer gertatzen. Eskuekin irekitzea izango dut onena... baina, eskua gerturatzean, atea zeharkatzen dit. Bestearekin saiatu eta gauza bera gertatzen zait. Beldurtzen hasia naiz jada. Inpultsoa hartu eta aurrera salto egiten dut, atea zeharkatuz. Burua argitu nahian korrika hasten naiz, ahal dudana azkarren, gelditu gabe, txirrin hotsa entzuten dudana arte. Nire institutua.

–Irakasleak oso egoera larrian dagoela esan zigun atzo –dio 13 urte inguruko neska batek, eraikina zeharkatzen duen hesiko atetik sartzean.

–Nire arrebak dio zenbat eta gehiago egon horrela, hobe dela. Ez du batere gustuko –dio Adrianaren anaiak.

Hori entzun orduko, sabelean norbaitek kolpe bat eman balit bezala nabaritu dut. Sinesgaitza da. Adriana nire lagunik onena da. Txiki-txikitatik egon gara batera. Ezin dut sinetsi gure laguntasuna gezurra izaterik. Hainbeste atsegin nuen nire institutuko bizitza, etxean ematen ez zidaten maitasuna jasotzen nuela iruditzen zitzaidan. Ama abokatua zenez, beti lanean egoten zen eta oso gutxitan zegoen etxean. Aitak, berriz, akademia bat zuen, ume eta gazteei hainbat irakasgairekin laguntzeko, eta baita helduei hizkuntzak irakasteko ere. Hortaz, goizean berarekin gosalduta eta gauean berarekin afaltzen nuen. Horrez gain, ez nuen egun osoan ikusten. Institutua zen nire babeslekua, denekin ongi moldatzen nintzen, denek ezagutzen ninduten, ikasle ona nintzen...

Hesia zeharkatu eta ate handiaren aurrean nago. Jendea nire ingurutik dabil, baina inork ez dit kasurik egiten. Hau ez zitzaidan inoiz gertatu. Orduan, nire bizilagun Jordi gerturatzeko zaidala ikusten dut, bere mutil-lagun Paurekin. Berengana lasterka hasten naiz eta, beren parean nagoenean, zeharkatu egiten naute. Ospitaleko gauza bera gertatu zait. Ez naute ikusten. Ez naiz benetakoa. Bi aldiz pentsatu gabe, atea zeharkatu eta institutura sartzen naiz. Denak hitzaldi gelan sartzen ari dira, eta bere bulegotik irteten ikusten dut Rosa zuzendaria, beti bezain dotore jantzita. Gela barrura jarraitzen diot eta, bera sartu orduko, denak isiltzen dira, errespetuz.

–Egun on, guztioi. Dakizuenez, gure ikasle batek orain dela astebete istripu handia izan zuen eta egoera larrian dago. Ez dakigu itzuliko den, baina medikuek diote seguruenik ez dela bizirik aterako. Beraz, dena ongi ateratzea eskatzea bakarrik geratzen zaigu eta familiari laguntzea.

Familiari, zertarako? Ez dute ezer lortuko. Nire gurasoak ez dira nitaz arduratzen, ez diet axola. Ez da posible, institutura itzuliko naiz. Bizirik aterako naiz kosta ahala kosta. Ukabilak gogor itxi eta arnasa sakon hartzen dut. Ez da egia. Nik bizitzen jarraituko dut.

Handik gutxira, zuzendariak klaseekin jarraitu behar dutela esan eta ikasle guztiei beren geletara joateko eskatzen die. Denak korridorera irteten dira eta, nire lagunak ikusten ditudanean, haien atzetik joaten naiz. Adriana doa erdian, Alba eta Aaron dituela albo bakoitzean. Aaron nire mutil laguna da, orain dela 6 hilabete-tatik. Zer egiten du Adrianaren eskutik helduta? Justu momentu horretan, beregana gerturatu eta musu ematen dio. Zer gertatu da hemen? Dudan haserrearekin berengana gerturatzen naiz eta nire lagunik onena zenaren hitzak entzun orduko zuri geratzen naiz.

–Hobe da ez bada bizirik irteten. Ez dut nahi bera berriz institutu honetara itzultzea. Orain ni naiz erlauntz honetako erregina, eta ez beste txolin hori –dio Adrianak barrez.

–Arrazoi duzu. Hain zen tuntuna! Inork ez zuen bere parean egoterik nahi, ez beregana gerturaterik. Ez zen ohartu Aaronekin irteten hasi eta bi astetara zuek batera zeundetela! –erantzuten dio Albak.

Hirurak barrez desagertzen dira gela batean. Korridore erdian nago. Espero nuen bezala, inork ez nau ikusten. Garrantzitsuagoa nintzela uste nuen; baina, berez, ez diot inori axola. Korridoretik doazen ikasleek pozik dirudite. Hemendik ibiltzen nintzen bakoitzean, denek kasu egiten zidaten, beti irribarre batekin begiratuz. Ez nuen inoren inbidiarik, nik uste nuen denek niri zidatela inbidia. Orain ohartzen naiz hori ez zela horrela, denak antzezten ari zirela. Orain ohartzen naiz zer harroa izan naizen. Ez dakit zehazki zergatik, baina hau dena pertsona batek bakarrik antolatu duen zerbait dela iruditzen zait. Denekin hitz egin ni horrela

tratatzeko, nik ideia okerra izateko eta momentu batean nire mundua behera etortzeko. Gaurko dena ikusita, hori pertsona batek bakarrik egin dezake...

–Ez, mesedez! Ez egin ezer, nik ez dizuet ezer egin. Utzi bakean! –norbait garasika dabil. Neska ahotsa dirudi.

–Nazkagarria zara! Ez zenuke hemen egon behar –dio beste batek.

Kolpe hotsa entzuten da, behin eta berriz. Neska hori jipoitzen ari dira. Negar zotinka ari da norbait. Korrika hasi eta soinuak datozen lekura joaten naiz. Mutil bat dago burumakur, ez neska bat, eta inguruan hainbat neska eta mutil ditu biritan. Hauek irribarra dute ahoan eta, txandatu, erdiko mutila jotzen dute. Zerbait egin beharra sentituz, haiengana gerturatzen naiz eta gelditzen saiatzen naiz. Aaronen lagunak dira. Noski, ezin ditut ukitu, eskua beren gainetik pasatzen baitzait. Moduren bat aurkitu behar dut indarkeria hau geratzeko. Pentsatzen hasi eta, gutxien espero dudanean, argia joaten da. Jendearen marmarrak entzuten ditut. Pare bat kolpe eta ahotsak urruntzen hasten dira. Erdian zegoen mutila bertan geratzen da. Berarengana gerturatu eta harrিতuta geratu beharrean, espero nuen zerbait dela ohartzen naiz: Paulo da.

–Zergatik niri? Ez dut ezer txarrik egin, ez diot inori min eman. Ezin dut gehiago... –dio negarrez.

Paulo mutil transexuala da. Lehen Paula izena zuen; baina, institutuan hasi ginenean, ohartu zen bere pentsamenduak ez zetozeela bat bere gorputzarekin. Orditik aurrera aldaketak egiten hasi zen, poliki-poliki. Korridoreetan denek begiratzen zioten, inori ez baitzizaion horrelakorik gertatu. Nik ikusten nuen bakoitzean nola sentituko ote zen pentsatzen nuen. Kanpotik axola ez zitzaiola erakusten zuen; baina, azkenean, bere gainean zeraman karga eta presio horrek asko eragingo zion. Lehen nire lagunak onenetakoa zen, lehen hezkuntza amaitu genuenean; baina, institutura joan ginenean, dena aldatu zen. Berak bere lagunak egin zituen, eta nik nireak. Edo hori uste nuen. Aldaketarekin hasi zenean, beti bakarrik ibiltzen zen; bere lagunak omen zirenak ere ez zioten kasurik egiten. Beregan gerturatu izana gustatuko litzaidake, baina ez nintzen ausartu. Nire lagunek oso gaizki hitz egiten zuten berari buruz eta ez zuten normaltzat jotzen, ia denek bezala. Nazka handia ematen zidan, jada 21. mendean egonda horrelakoak gertatzen jendeak modu horretan erantzutea. Inori ez dio kalterik egiten, bere osasun mentalerako den aldaketa bat da, bere hobe beharrez egiten duena. Oso gaizki egin nuen ez laguntzen eta, orain ikusi dudana ikusita, ikaragarritzko akatsa egin nuela ohartzen naiz. Antza denez, ez da lehen aldia horrelakoak gertatzen zaizkiola Paulori. Ez nuen ideiarik. Berak inoiz ez dit ezer txarrik egin; baina, laguntza behar izan banu, badakit bera hor egongo zela, nahiz eta berak behar izan nauenean ni ez ohartu eta ez egon. Beti izan da horrela. Oso gaizki jokatu dut berarekin.

Bere ondoan egoten naiz lasaitzen den arte. Jada negar egiteari utzi dionean, zutitu eta korridorera irteten da. Zuzendariaren bulegora joango zelakoan nen-

goen, baina beste gela batera sartzen da. Bere atzetik joaten naiz. Laborategian sartzen gara. Irakasleak ariketa azaldu eta ikasleei esan die zuzendariarekin hitz egitera joan behar duela, istripuaren arazoa ez baitute oraindik guztiz argitu.

–Bada, nik ez dut nahi itzultzerik. Gogaikarria zen, beti irribarre faltsu hori ahoan jarrita. Denentzako hobe izango da ez itzultzea –dio erdiko lerroan dagoen neska batek.

Denek *arrazoi duzu* edo *egia da* esanez erantzuten diote, Paulok burumakur jarraitzen duen bitartean. Ezin dut hau dena jasan, zorabiatu egingo naizela iruditzen zait. Lehenengo, ezin naute ikusi, ezin dut ezer ukitu eta, gainera, inork ez nau bere inguruan nahi. Azken lau urte hauek ez dira benetakoak izan. Nire burbuila polit horretan bizi nintzen, inguruan gertatzen zitzaidanaz ohartu gabe.

–Nahikoa da! –dio Paulok–. Aste osoa daramat gauza bera entzuten. Ez zarete ohartzen hil ala biziko kontua dela? Ez da institutuz aldatuko dela, baizik eta mundu honetatik joango dela. Ez duzue gehiago ikusiko bizitza osoan, ez da gehiago hemen egongo. Ezjakin hutsak zarete.

–Zuk nahikoa duzu zurearekin! Ez zara normala, ezin zaizu pertsona ere kontsideratu –dio mutil batek.

Paulok burua makurtzen du, ukabilak estutuz. Defenditu egin nau, bera izan da ikasgela osoan defenditu nauen bakarra eta, horregatik, mutil horrek iraindu egin du. Ez du hori merezi. Asko amorratzen nau berak jasotzen duen tratuak. Aurpegia gorritzen zait haserreagatik, mutiko horri egiteko hainbat gauza burutik pasatzen zaizkidan bitartean. Ikaragarri gustatuko litzaidake...

–Kontuz! –oihukatu du hasierako neskak.

Momentu horretan pilota batek leihoa apurtzen du eta Paulo iraindu duen mutilari ematen dio sudurrean, bete-betean. Orduan, sudurra ukitzen du eta eskua kentzean, odola dariola ikusten du. Korrika laborategitik irteten da, botikina dagoen tokira-edo. Paulori begiratzen diot: irribarre bat du ahoan, baina bere begiradak harridura erakusten du. Irribarre batekin ikasgelatik irteten naiz. Paulok gehiegi sufritu du; orain, behintzat, lasaitasunezko denbora bat izango du. Ni ez naiz hori ikusteko egongo, ordea. Ikusitakoa ikusita, hobe dut nire bizitzarekin amaitzea aukeratu. Badakit institutura itzuliz gero, Pauloren laguntasuna izango nuela, baita Jordi eta bere mutil-lagun Pauren babesa ere. Hala ere, jendearen begiradak, irribarre faltsuak, benetakoa ez den jarrera, gezurretako lagunak... Gehiegizkoa izango litzateke niretzat.

Hori dena pentsatuta, ospitalera noa nire erabakia hartuta. Mundu honetan maite nauen inor ez badago, edo nirekin benetako harremana izan duena, ez du bizitzeak merezi. Familiarik ez dut, aitaren gurasoak ez nituen ezagutu eta amarenek ez dute gutaz ezer jakin nahi. Lotsatu egiten dira, amak duen adimen eta diruarekin berea baino maila baxuagoko lana duen gizonarekin ezkondu zelako.

Nire amak maite zuenarekin jarraitu zuen, etorkizunari begiratu gabe eta hori bere gurasoei ez zitzaien gustatu. Ikaragarri banandu ziren alabagandik, eta orain ez dakigu non bizi diren ere. Hori dena pasatu ondoren, ez pentsa ikaragarritzko harremana izan genuenik ere. Amak irabazten zuen diruarekin zaindariak kontratatzen zituzten ni txikia nintzenean zaindu nintzaten. Ez dut inoiz Marco ahaztuko: sei urtez zaindu ninduen eta nire benetako aita bezala tratatu ninduen. Benetan maitatua sentitu nintzen berarekin, gurasoekin ez bezala. Amak ez ninduen ezagutu ere egiten, bere bidaiak zirela-eta ez zegoen inoiz etxean eta, gurekin zegoela ere, bere bulegoan lanean ari zen. Aitarekin ezberdina da, nirekin egoten da, egunean bi ordu asko jota, lo egitekoak kontuan hartu gabe. Aitak ezagutzen nau, baina ez dit aita batek alaba bati eman beharko liokeen babesa edo konfiantza eman. Niretzat aita ezezagun bat bezala da, familia urruneko osaba bat bezalakoa.

Uste baino lehenago iristen naiz ospitalera, atea zeharkatu eta 304 logelara abiatzen naiz. Korridoretan jendea negarrez dago, ume batzuk geldirik egon ezinik, eta medikuak alde batetik bestera. Nire medikua ikusten dut, Rosa, eta bere atzetik joaten naiz nire logelara doala pentsatuz. Ez da horrela. Bide erdian geratzen da eta eskuin aldean dagoen gela txiki batera sartzen da. Zerbait esaten du altu, baina ez dut ongi ulertzen. Handik gutxira bikote batekin irteten da. Eskua emanda daude eta negarrez ari dira, biek buruak elkarren kontra dituztela. Nire gurasoak dira. Zuri geratzen naiz. Ezin dut sinetsi. Ez nuen uste inor etorriko zenik ni ikustera. Nire gelan sartzen direla ikusten dut. Malkoak irtengo zaizkidala nabaritzen dut, baina ezinezkoa izango litzateke, ez bainaiz benetakoa. Nire gelan sartzen naiz ni ere eta nire gorputzak berdin jarraitzen duela ikusten dut. Nire gurasoak ohe ertzean daude elkar besarkatzen, Rosa gelatik atera eta atea ixten duen bitartean.

–Maitea –hasi da nire ama–, ez zaitetz joan, mesedez. Borroka ezazu amaiera arte. Ez utzi horrela; mesedez eskatzen dizut. Zu gabe ez ginateke berdinak izango, munduan garrantzitsua den bakarra zara guretzat. Ez gara guraso onenak izan, badaki; batez ere ni. Zure lehen hitzak galdu nituen, baita zure lehen pausuak ere. Hori inoiz nire buruari barkatuko ez diodan akatsa da. Zure ama naiz eta ezezagun bat bezala jokatu dut, baina badakizu zer esaten duten: *Inor ezta ohartzan daukan guztiaz, galtzen duen arte*. Hori gertatu zait zurekin: zu galtzeko arriskua ikusi dudanean, gogoeta egiten hasi naiz eta buruan zure oroitzapenik ez dudala ohartu naiz. Ez zaitut hazten ikusi. Barka egidazu, mesedez –dio negar egiteari utzi gabe.

–Ni ere ez naiz onena izan –jarraitu du aitak–. Zurekin egoteko aukerak izan ditut, eta ez ditut inoiz aprobetxatu. Ordubete libre nuen akademian eta, zuregana joan beharrean, bulegoan geratzen nintzen. Ez zitzaidan burutik pasatzen ere zuregana joatea. Ezin dut sinetsi zer jarrera txarra izan dudan zurekiko. Barka egidazu, maitea! Benetan, ez da nire asmoa izan eta ez dakit zer egin konpontzeko. Baina bai zure amak eta baita nik ere badakigu, denboran atzera eginez gero eta aukera izanez gero, hau dena aldatuko genukeela, beti zurekin egongo ginatekeela, gurasoen eginbeharra betetzen.

Nahikoa da horrekin. Ezin dut gehiago jasan. Erabakia hartu dut eta ez dago atzera bueltarik.

–Begira, kuttuna! –dio nire aitak–. Begiak zabaltzen ari da...

–Ama? Aita? –diot nik.

Hala da, bizitza behin bakarrik biziko dugun zerbait da; iraganean ez badugu ongi jokatu, beti izango dugu aukera bat gure akatsak konpontzeko, berriz ere hanka ez sartzeko. Aurrera jarraitu behar da, orainaldia bizi, iraganaz oroitu eta etorkizunaz pentsatu.

Leire Elorza